

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2020 / 2021 ikasturtea

Deustualdeko auzoetan aisialdiko elkarreek egiten duten lanaren analisia: etorkinen inklusiorako begirada bat

Egilea: Izaskun Malave Bravo

Zuzendaria: Aintzane Cabo Bilbao

Leioan, 2021eko ekainaren 7an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Marko teoriko eta kontzeptuala.....	4
1.1. Aisialdiaren eta denbora librearen historia Espainian	4
1.1.1. Bilboko testuingurura gerturatzea	6
1.2. Aisialdiaren eta denbora librearen garrantzia	7
1.3. Etorkinen integrazioa: Zer da integratuta egotea?	8
1.4. Talde edo leku bateko kide izatearen sentimendua	11
1.5. Kulturen arteko topaketa eta bertakoekin adiskidetasun-harremanak	11
1.6. Aisialdiaren eta integrazioaren arteko harremana.....	13
2. Metodologia	13
2.1. Ikerketaren helburuak	13
2.2. Berrikusketa Bibliografikoa.....	14
2.3. Metodologia kualitatiboa: Galdetegiak eta Elkarrizketak.....	17
2.4. Lagina	21
3. Lanaren Garapena	21
4. Eraitzen azterketa	22
5. Ondorioak.....	28
6. Erreferentzia bibliografikoak	29
Eranskinak	33

**DEUSTUALDEKO AUZOETAN AISIALDIKO ELKARTEEK EGITEN DUTEN LANAREN ANALISIA:
ETORKINEN INKLUSIORAKO BEGIRADA BAT**

Izaskun Malave Bravo
UPV/EHU

Gratu Amaierako Lan honen helburu nagusia, Deustualdeko auzoetan aisialdia bideratzen dutenen lanaren eta erabiltzen dituzten errekurtsu desberdinen analisisa egitea da, zehazki etorkinekiko inklusioari dagokionez. Horretarako, metodologia kualitatiboaren bitartez, aisialdi talde desberdinekin harremanetan jarri da eta galdetegi bat diseinatu da, zeina Deustuko aisialdi taldeetako begirale desberdinei bidalita izan den. Ikerketa honen bidez, egiaztatu da urteetan zehar izan duten bilakaeraren ondoren, aisialdi taldeak, tresna baliagarria direla gizarteratze prozesuetan eta etorkinak komunitate baten parte sentitzen laguntzeko.

Etorkinak, aisialdia, inklusioa, identitatea, parte-hartzea.

El objetivo principal de este Trabajo de Fin de Grado, es el análisis del trabajo de las personas dedicadas al ocio en los barrios de Deusto y de los diferentes recursos que utilizan, en concreto a los que se refiere a la inclusión con las personas inmigrantes. Para ello, a través de la metodología cualitativa, se ha contactado con diferentes grupos de tiempo libre y se ha diseñado un cuestionario que ha sido enviado a diferentes monitores de los grupos de Deusto. A través de esta investigación, se ha comprobado que, tras la evolución que han tenido a lo largo de los años, los grupos de ocio, son una herramienta útil en los procesos de integración social y para ayudar a los inmigrantes a sentirse parte de una comunidad.

Inmigrantes, ocio, inclusión, identidad, participación.

The main objective of this Final Degree Project is to analyze the work of the people dedicated to leisure in the neighborhoods of Deusto and the different resources they use, specifically those related to the inclusion of immigrants. For this purpose, a qualitative research has been carried out, through which different free time clubs have been contacted and a questionnaire has been designed and sent to different instructors of these groups in Deusto. Through this research, it has been proved that, after the evolution leisure groups have had over the years, they are a useful tool in the processes of social integration and in helping immigrants feel part of a community.

Immigrants, leisure, inclusion, identity, participation.

Sarrera

Gaur egun, aisialdia eta denbora librea garrantzi handia hartzen ari dira gure gizartean; izan ere, esan dezakegu gero eta pertsona indibidualistagoak garela daukagun sistema kapitalista honen barruan. Gainera, COVID-19agatik igaro berri dugun pandemia globala zeharkatuta, baiezta dezakegu aisialdi taldeek lana zailagoa izan arren, erabat ezinbestekoak bihurtu direla, bai arnasa hartzeko eta bai egoera honetatik ihes egin ahal izateko, ordu gutxi batzuk izan arren.

Horren harira, jasaten ari garen errealitate zaila argitu eta alde batera uzteko lekua izateaz gain, hezkuntza ez-formala modu dibertigarri eta hurbilean jasotzen den lekua ere bada, aisialdi-taldeek bitartez (horrek dakarren guztiarekin: naturari buruzko hezkuntza, bizikidetzaz...), ludotekekin, kirol-taldeekin, jai batzordeekin, e.a.

Horregatik eta aurrerago aztertuko dugunagatik, uste dut, aisialdia eta denbora librea oso aukera ona dela bizileku berri batera iristen diren etorkinentzat. Eta beraz, aldi berean, aipatutako aisialdi talde hauek prest egon beharko lirateke etorkin hauen inklusioa modu egoki batean gauzatzeko, edo behintzat, taldearen garapenean lan egiteko, inklusioari dagokionez. Izan ere, talde horiek jendea errazago eta hurbilago ezagutzeko aukera ematen dute, bai eta asko errazten dute auzoan egiten diren jardueretan parte hartzea.

Arestian esandako guztiagatik eta hainbat urtez aisialdi talde bateko kidea izateagatik, Gizarte Hezkuntzako gradu honen Gradu Amaierako Lana (GrAL) egiteko ideia bururatu zitzaidan, Deustualdeko auzo desberdinetan aisialdia bideratzen dutenen lanaren eta erabiltzen dituzten errekurso desberdinen analisia egitea. Aisialdiko taldeek etorkinen inklusioari dagokionez izan duten garapena aztertzeke lan askorik aurkitu ez ditudanez, jorratu beharreko gaiari buruzko informazio nahikoa biltzeko asmoz, nire datuak eman nahi nituzke zuzen nagoen egiaztatzeko.

Aipatutako guztia aurrera eramateko, Deustualdeko auzoetan aisialdia bideratzen dutenen analisia burutzeko galdetegi bat sortu dut. Aztergaia ikertzeko, datu kualitatiboak eskuratu ditut, galdetegi eta elkarrizketen bitartez jasoak izan direnak. Ikerketaren lagina Deustualdeko aisialdi talde desberdinen hezitzaile edo begiraleek osatuko dute.

1. Marko teoriko eta kontzeptuala

1.1. Aisialdiaren eta denbora librearen historia Espainian

Aisialdia eta denbora librea ez da batere kontzeptu berritzailea, duela urte askotatik existitzen baita. Egia da, aisiaren terminoa eboluzionatuz joan dela denborarekin eta definizioa aldatuz joan dela garaiarekin batera. Antzina, “Denbora Librea” terminoak lotura zuzena zuen klase sozial altuekin; izan ere, edonork ezin zuen denbora hori hartu erlaxazioan eta norberaren askatasunean emateko. Gero sakonago azalduko dugun bezala, industria-iraultzarekin, lanaldia murriztu beharrean, handitu egiten da haur, gazte eta helduentzat. Gaur egun berriz, lanaren kontrako kontzeptu bezala ulertzen dugu, baina esan dezakegu oso kontzeptu irekia dela, esparru asko hartzen dituen, eta hainbat modutan oso ingurune edo espazio desberdinetan egin daitekeena.

De Castro Cardoso eta Cabezas González (2008) aurrera eramandako lanaren arabera, trantsizio politikotik aurrera, aukera anitzetara ireki ahal izan ziren Espainiako hainbat gazte-mugimendu. 1940an, Gazteen Frontea sortu, eta gazteen kokapenerako eredu bakar gisa kokatu zen; horrek gazte-mugimenduen erabateko praktika desagertzea eragin zuen. Geroago, 1970ean, Mugimenduaren Idazkaritza Nagusiaren Organoak Antolatze eta Garatzeko Arauak (B.O.E., núm. 217, de 10 de septiembre) eta ondorengo Gazteriaren Ordezkaritza Nazionalaren Arau Organikoa (B.O.E., núm. 288, de 2 de diciembre) oinarri hartuta, gazte-buruzagiak prestatzeko eskumenak berregituratu ziren.

Une horretatik aurrera, kolonietako eta kanpamenduetako arduradunen prestakuntza (60ko hamarkadan garapen handia ezagutzen hasi zena) behar bat izaten hasten da, ofizialtasuneko erantzunak jada, labur geratuz. Azpimarratzekoa da Bartzelonako L'Esplai Eskola, aitzindaria izan zela begiraleen prestakuntzan. Gazteriaren Ordezkaritza Nazionalak eta Emakumeen Atalak arduratu ziren jarduera horiek zuzentzeko titulua egiaztatzeaz (kanpamenduak, udalekuak, martxak, etab.), eta pertsona horiek titulatzeke ikastaroak antolatu zituzten urtero (De Castro Cardoso eta Cabezas González, 2008).

Trantsizio Politikoak eta Autonomien Estatua sortzeak, aldaketa sakonak ekarri zituzten aisialdiko hezitzaileen prestakuntzaren alorrean. Batez ere, hezkuntza-sistema ez-formal gisa finkatzea, gazte-erakundeen eskumenetan oinarrituta. Gainera, beste behin ere, Kataluniak, 1981ean, aisialdiko hezitzaileen prestakuntzari buruzko lehen legedi autonomikoa ezarri zuen. Era berean, 'Aire Librea' eta 'Aire Libreko Eskolak' erabiliak

ziren terminoak aldatu eta lehen aldiz, 'Aisialdiko Hezitzaileen Eskolak' izena hartu zuten; prestakuntza-prozesuari dagokionez ere, argi finkatzen dira bi prestakuntza-maila: monitoreak eta zuzendari-koordinatzaileak, 3 etapa desberdinekin: 1. Etapa teoriko-praktikoa. 2. Praktika-etapa 3. Amaierako memoria (De Castro Cardoso eta Cabezas González, 2008).

López de Cevallos eta Salasen azterlaneko datuek erakusten duten moduan eta prestakuntza hori eman zuten zentzoei dagokienez, erakundeen jatorria nahiko desberdina zela ikusteko aukera izan dugu. Animatezaile soziokulturalen prestakuntza-zentroen %41a Eliza Katolikoak sustatu zituen, %32a kultura-elkarteez eta %27a erakunde publikoek. (López de Cevallos y Salas, 1987; in De Castro Cardoso eta Cabezas González, 2008). 1990etik aurrera, topaketa, kongresuak eta ospakizunak egin dira, aisialdiko zentroen eta erakundeen sareak eta federazioak sortu dira, ekarpen indibidual eta kolektibo garrantzitsuak eman dira eta milaka hezitzaile anonimok parte hartu duten prestakuntza-jarduerak egon dira (De Castro Cardoso eta Cabezas González, 2008).

Bestalde, garrantzitsua ikusten dut aurrera eramango den ikerketarako, aisiaren eremuak finkatzea eta murriztea. Izan ere, aisiak hainbat gune desberdin hartzen ditu bere baitan; Berrio-Otxoa et al. (2003) egindako ikerketa batean oinarrituta, aisialdiko guneak irudian ikus ditzakegun lau multzo horietan sailkatuko lirateke. Ikerketa esparrua pixka bat murriztu ahal izateko, Gune

Monitorizatuera mugatzea erabaki dut. Berrio-Otxoa et al. bere lanean azaltzen duen moduan (2003), gune monitorizatu hauen barnean kirol eta kultur taldeak, aisialdiko taldeak, gaztelekuak, e.a. sartuko lirateke, beste batzuekin batera.

Gune hauek hezitzaile edo helduen eskutik antolatuak egoten dira eta gazteei bideratuak. Beraz, gehienetan, begirale baten arduraren egoten dira egituratutako programan edo ekintzetan zehar. Talde hauetan aurrera eramaten dituzten ekintzak, aurretik zehaztutakoak izateaz gain, hezkuntza ez-formalarekin lotutakoak izaten dira, betiere, haien gaitasunak edota trebetasunak indartzeko asmoarekin. Gainera,



1. Irudia: Lanildoen egituraketa: Guneen aurkezpena. (Berrio-Otxoa et al., 2003a)

azpimarratzekoa da, egiten diren jarduerak gazteek ondo pasatzeko badira ere (izan ere, kasu gehienetan, haiek aukeratzen dituzte egin nahi dituzten jarduerak), konpromisoa erakutsi behar dutela, talde horietara joateak ahalegina eta jarraipena eskatzen baititu (Berrio-Otxoa et al., 2003).

Aipatutako guztiaz gain, begiraleak prozesuaren protagonistak dira gazteekin batera, talde horietan sortzen diren loturak oso indartsuak baitira taldearen funtzionamendurako eta sortzen diren harremanetarako. Gazteek begiralea izan dezakete figura konfidentzial gisa, imitatzen dutena edo erreferentzia gisa dutena, e.a. Beraz, oso zeregin garrantzitsua dutela esan dezakegu. Aisialdirako hezkuntzak, hezkuntza formalak bezala, gizartearen aldaketek planteatzen dituzten premia berriei praktikan erantzuteko erronka eta betebeharra du. Kasu honetan, immigrazioa da, argi eta garbi, gaur egun Espainian planteatutako hezkuntza-erronka nagusietakoa (Montejo Cobo, 2003).

1.1.1. Bilboko testuingurura gerturatzea

Deustuko testuinguruan murgildu aurretik, Bilboko testuinguruaren egoera ezagutu beharko dugu. Horretarako, Bilbon erroldatutako jatorri atzerritarreko biztanleen bilakaeraren azterketa bat hartuko dugu oinarritzat. Immigrazioaren Bilboko Behatokiak baieztatzen duenez (2019), jatorri atzerritarra duten Bilbotarren kopuru handiena 19-50 urte bitarteko adinetan kontzentratzen da, tarte garrantzitsua 19-35 urtekoa izanda; izan ere, horiek dira potentzialki aktiboak eta ugalketarako diren adin-tarteak. Hala ere, adin-txikikoak diren gazte kopuru garrantzitsua ere dagoela ikus dezakegu. Immigrazioaren Bilboko Behatokiaren azterlanaren arabera (2019), 0 eta 17 urte bitarteko gazteetatik, gehiengoa Asia eta Latinoamerikatik etorriak dira. Deustuk, Bilboko biztanle atzerritarren ehuneko osotik, %11,4 du; gainera, ehuneko horretan, Latinoamerikako jatorriko pertsonen presentzia handiagoa ikus daiteke, %67,3koa hain zuzen ere.

Bestalde, auzoen distribuzioan zentratuz, Deustuko barrutia auzo txikiagotan banatuta dagoela esan dezakegu, horien artean: Arangoiti, San Inazio, Ibarrekolanda eta Erribera. Auzo horietako bakoitzean, aisialdi talde bat dagoela edo egon dela baieztatu dezakegu. GrAL honetarako, horietako batzuek baliatuko naiz. Jarraian agertuko diren aisialdi taldeak dira Deustualdean daudenetatik azterketarako komenigarriak ikusi ditudanak eta ondoan, talde horietan dauden etorkinen ehunekoa aztertuko dut. Deustun: Gazte Alai aisialdi taldea %15, Txantxiku 0%, Izartxo %15 eta Egunsentia Eskaut taldea %10; San Inazion: Txepetx 0%; eta Ibarrekolandan: Etorkizuna Eskaut taldea %10.

1.2. Aisialdiaren eta denbora librearen garrantzia

Pérez Serranok eta De-Juanas Oliva-k baieztatzen duten moduan (2004), aisialdiko eta denbora libreko bizipenak izatea hainbat onura fisiko eta psikologiko dituen aukera gisa aurkezten da, batez ere arrisku edo zailtasun sozialeko egoeran dauden pertsonentzat. Ingurune berdeek, alde batetik, ongizate psikikoari laguntzen diote, arreta hobetuz, agresibitatea eta suminkortasuna murriztuz, oreka animikoa eta autoestimua berreskuratuz, e.a. Beste alde batetik, ongizate fisikoari ere laguntzen diote, immunitate-sistemaren funtzionamendua hobetuz eta gaitz fisikoen aurrean berreskuratzen lagunduz (Kaplan eta Kaplan, 1989; in Pérez Serrano eta De-Juana Olivas, 2004).

Bereziki garrantzitsua da aipatutako gazte hauek, haien aisialdian espazio naturalak erabiltzea; izan ere, kolektibo horren helduarorako trantsizioen ezaugarri nabarmenetako bat zailtasunak dira. Halaber, testuinguru pertsonal eta sozialean helduarora trantsizioa arinegia eman daiteke, eta horrek tentsioa eta segurtasun eza eragin diezaieke, egunek haiengan egunero eragiten duten presio handia sentitzen baitute. Arrutiren arabera (2004), garrantzitsua da pertsona horiek horrelako dinamiketan barneratzen hastea: “Olvidarse de los problemas cotidianos; descargar tensiones; liberarse; evadirse de la rutina y recuperar las energías perdidas; divertirse; encontrar la tranquilidad, la paz interior, recrearse y relajarse” (Arruti, 2004; in Pérez Serrano eta De-Juanas Oliva, 2014).

- Aisialdiko hezkuntzaren balorazioa familietan zentratuz:

Gehienetan, jatorri etorkina duten familiek ez dute aisialdia hezkuntza-prozesuekin lotzen. Horregatik, gerta daiteke aisialdiko begiraleen lana seme-alabentzat “jolas gune” edo “jarduera baztergarri” gisa interpretatzea. Hezitzaileek erakundearen helburuen eta beren semearen lan-planaren berri eman behar diete familiei; Familia horietara iritsi ahal izateko, "Distantzia kulturala" murrizteko modua aztertu behar da, komunikazioa oztopa baitezake (Montejo Cobo, 2003).

- Hizkuntzaren ikaskuntza:

Edozein haur edo gazte etorkinentzat lehenetsuna duen gaietako bat harrera-herrialdeko hizkuntza ikastea da. Montejo Coboren esanetan (2003), aisialdiko erakundeek prozesu hori erraztu dezakete jardueretan parte hartuz, denbora, jolasak edo lana gainerako lankideekin partekatuz, eta modu horretan, hizkuntza modu naturalean ikastea erraztuz.

- Nerabezaroa eta identitatea edo nortasuna:

Jakin badakigu, edozein nerabek bere nortasuna eraikitzeko, talde eta balio batzuekin lotzeko beharra sentitzen duela eta hori guztia gatazkarako arrazoia izaten dela; hots, jatorri etorkineko gazte batek zailtasun gehiago izan ditzakeela esan dezakegu. Ideia nagusia da identitatearen eraikuntzak etorkizuneko bideak aukeratzea erabakitzen duela. Ez da batere erreza dualtasunean eta dikotomian oinarritutako nortasun propioa eraikitzea. Hezkuntzako profesionalek ahaleginak egin behar dituzte egoera horiek ulertzeko, eta hausnarketarako, eztabaidarako eta arrazoinamendurako espazioak errazteko, elkarrizketa informalarri eta konfiantzari eskolakoari baino gehiago ematen zaion testuinguru batean (Montejo Cobo, 2003).

- Parte-hartzea:

Prozesu parte-hartzaileak integrazio-ereduak dira berez; aisialdiko erakundeetan, horrek konstante metodologiko bat izan beharko luke, eta, aldi berean, helburu bat. Etorkin gazteei buruz hitz egiten dugunean, “Sozialki gutxietsiak” diren eta “bigarren mailako herritar” senti daitezkeen pertsonen ari gara askotan. Horregatik, garrantzitsua da metodologia parte-hartzailea hezkuntza-prozesu guztien parte izatea. Horretarako hiru parte hartze-maila desberdin planteatzen dizkigu: “1er nivel: Personal, de decisión, de saber escoger una actividad, etc. 2o nivel: Propuesta, organización, consenso para realizar actividad. 3er nivel: Participación e implicación activa en el barrio, con alguna entidad, etc.” (Montejo Cobo, 2003, orr. 133).

1.3. Etorkinen integrazioa: Zer da integratuta egotea?

Lehenik eta behin, etorkinen integrazioarekin hasi baino lehen, beharrezkoa ikusten dut inklusioaren eta integrazioaren bereizketa bat egitea. Integrazioa, Fonseca eta Malheiros-en arabera (2005, orr. 3), honako hau izango litzateke:

Their integration trajectories [immigrant’s integration trajectories] are processes of creative adaptation to the local living conditions and to the collective and cooperative (re)construction of the territories in which they live, involving a process of mutual learning made cooperation and conflict, dialogue and exchange of know-how, experiences and cultural practices between individuals, social groups and ethnic communities that share the same geographic area. Therefore, it is possible to identify a successful integration process by the progressive convergence of immigrants’ living conditions to those of the native population and by the decrease in the level of ethnic stratification (Fonseca eta Malheiros, 2005, orr. 3; in Muniategi Azkona, 2012).

Etorkinen integrazio-ibilbideak, tokiko bizi-baldintzetara eta bizi diren lurraldeen berreraikuntza kolektibo eta kooperatiboetara egokitzeko prozesuak dira. Horrek esan nahi du, tokiko biztanleen eta etorkinen arteko ikaskuntza-prozesu bat egin behar dela, lankidetzan, elkarrizketa eta esperientzia zein praktika kulturalak trukatu. Hori dela eta, integrazioa gehiengoaren gizartean sartzeko egin behar den lantzat har genezake, etorkinei edo gutxiengo etnikoei egokitzen zaiena.

Inklusioa aldiz, pertsona guztien premien aniztasunari heltzea eta erantzutea ahalbidetzen duen prozesu gisa definitu liteke, ikaskuntzan, kultura- eta komunitate-jardueretan eta, aldi berean, bazterkeria murriztearen bidez. Aurrekoak edukiak aldatzea dakar, ikuspegi komun batean oinarrituta. Inklusioaren helburua, mota guztietako ikaskuntza-beharrei erantzun egokiak ematea da, ingurune formaletan zein ez-formaletan (Leiva Olivencia, 2013).

Laburbilduz, esan genezake alde handiak daudela integrazioaren eta inklusioaren artean. Integrazioak desberdintasuna onartzen duen bitartean, inklusioak jaso, harengandik ikasi eta ospatu egiten du; integrazioak desberdintasunak edo mugak azpimarratzen dituen bitartean, inklusioak partaidetzarako, aurrerapenerako eta ikaskuntzarako oztopoak ezabatzeaz hitz egiten du; integrazioak, oro har, praktika segregatzaileekin lan egiten duen bitartean (adibidez, lankideez bestelako jarduerak eginez), inklusioak laguntzekin ezabatzen ditu presentziarako eta partaidetzarako oztopoak. Guzti hau, ikaskuntza pertsonalizatuz, hau da, pertsona guztien behar eta interesetara egokituz (Elizondo Carmona, 2017).

Pradillosek idatzitako artikulua arabera (2020), pertsona integratu bat bere herrian dauden baliabide komunitarioen asetasuna eta gozamina lortzeko gai dena izango litzateke. Horregatik, subjektu bat integratzeak, gizartean aktiboki parte hartzea dakarrela uste da. Escartín Caparrósek (2015) adierazten duen moduan eta askotan gure egunerokotasunean entzuten dugun bezala, liskar handia dago tokiko eta etorkinen arteko ikuspuntuaren artean. Etorkinek, tokiko pertsonen ikuspuntuaren arabera, bere kultura-ondarea utzi behar dute kultura-ohituretara eta –arauetara egokitzeko edo asimilatzeke, eta etorkinek aldiz, bere kultura-nortasunari eusteko duten jarrera defendatzen dute.

Baina, zer da identitatea edo identitate sentimendua? Archuf-en esanetan (2002), identitatea bizitzei eta norberaren, familiaren eta taldearen ibilbideei zentzua ematen dien praktika esanguratsuen multzoa da. Gainera, identitatea ez da kontzeptu estatikoa, giza existentziaren bidez eraikitzen eta eraldatzen doan kontzeptua baizik (Maalouf, 1998). Baumanentzat berriz, nortasunaren kontzeptua anibalentea da berez, hauskorra eta behin-behinekoa eta pertsona baten bizi-esperientzian zehar garatzen dena (Maalouf, 1998; Archuf, 2002; in Escartín Cparrós, 2015).

Identitatea eta nortasun-ezaugarriak besteen aurrean berresteko erabiltzen ditugu, gure izate soziala desagertzen dela sentitzen dugunean. Escartín Caparrósen hitzetan (2015), identitatea autoerrepresentazio modu bat bihurtzen da, eta, beraz, batzuetan, nortasuna berreraikitzeke prozesu bat ikusten da harrera-herrialdean: emakume magrebtarren zapia, etorkin perutarren harrotasuna eta indigena berreskuratzea, e.a. Hala ere, beste kasu batzuetan ezkutatzeko estrategiak nabarmentzen dira, ingurunearekin asimilatzeke.

Bestalde, gizarte pluralen testuinguruan, kultura-identitatearen kontzeptua ere nabarmentzen dela esan beharra daukagu. Kontzeptu horrek berekin dakar ezaugarri kulturalak partekatzen dituen gizarte-talde bateko kide izatearen zentzua, hala nola ohiturak, balioak eta sinesmenak; hori, ordea, ez da kontzeptu estatiko bat, baizik eta sortu eta birsortu egiten dena, eta etengabe eraldatzen eta aberasten ari dena, ingurunearen eraginen bidez (Escartín Caparrós, 2015).

Hala eta guztiz ere, batzuetan errealitatea ez da erakusten digutenaren modukoa, eta egungo gizarte pluralek, multikulturalek eta multietnikoek ez dute kulturen arteko harreman aberasgarri eta harmoniatsuen alde egiten; hots, guztiz kontrakoa gertatzen dela esan dezakegu, pertsona batzuk baztertuak izaten dira eta ukatu egiten zaie herritar izaera. Gaur egungo errealitatean, benetako kultura-aniztasuna ez dago ez estamentuen aldetik, ez masa sozialaren aldetik, hau da, gizarte zatituta dago eta banaketa ukazina da herritarren eta herritar ez direnen artean. Immigrazioaren errealitate soziala, ezinbestean, emigrante bat gizarte hartzailearentzat atzerritarra izatea da; arrotz bat da, eguneroko bizikidetzan ez ezik, alderdi sozial, ekonomiko eta laboralean ere eragiten duena (Escartín Caparrós, 2015).

Tristeia badirudi ere, gure gizartean, 'Besteak' beldurra sortzen du, bai gure egonkortasun materialean (“lana kentzen digutelako”) bai gure nortasunean, gure sinesmenetan, gure ohituretan mehatxu gisa ikusten delako. Immigrazioak, edozein gizarte-testuingurutan eta une historikotan, gizarte hartzaileetan zenbait gogoeta, analisi, posizionamendu eta jarrera sortzen ditu (Escartín Caparrós, 2015, orr. 45-51).

1.4. Talde edo leku bateko kide izatearen sentimendua

Jakin badakigu, talde edo leku bateko kide izateak oso eroso sentiarazten gaituela, eta are gehiago leku hori berria bada guretzat edo beste batetik emigratzen ari bagara. Comas d'Argemir eta Pujadas Muñoz-en artikulua arabera (1991), nortasun etnikoa gizabanakoa jaiotzez kide den kolektibitatearekin lotzen duen kidetasun-sentimendu mota bat da. Sentimendu hori balio, ekintza eta sinboloen multzo oso batean oinarritzen da. Horiek, kolektibitate bereko banakoen arteko komunikazio- eta interakzio-eremu bat osatzen dute, eta, aldi berean, beste talde batzuegandik bereizteko faktore gisa jarduten dute. Migrazio-esperientziak, gizabanakoak beren taldetik kanpo jarri eta beste unibertso sinboliko batzuekin harremanetan jartzen dituenak, identitatearen egokitzapen-funtzioak aztertzeke aukera ematen du.

1.5. Kulturen arteko topaketa eta bertakoekin adiskidetasun-harremanak

Nire ustez, integrazio prozesu honetako faktore moduan, oso garrantzitsua eta aldi berean interesgarria da etorkinen eta jatorrizko tokiko pertsonen artean sortzen diren adiskidetasun-harremanak aztertzea. Pinto de Almeidak egindako ikerketaren arabera (2015), elkarbizitzarako aukera hau, askotan, arrakastek edo akatsek lehenesten dute, pertsona hauek “topaketara joatea” edo “gauzak denborarekin berez gertatzea itxarotea” zer den egokiagoa erabakitzeko orduan.

Batzuetan ziurtzat jotzen da jatorrizko tokiko pertsonekin elkarreraginean aritzeak eta, beraz, harreman pertsonalez gozatzeak erraza edo sinplea dela, baina integrazio prozesu batean zaudenean, istorioa guztiz desberdina dela esan dezakegu, normalean, zaila eta estugarria bihurtzen baita. Nire ustez, besteen begirada zer den hautemateak “besteekin elkartzera” ixtea eragiten du. Horrek, asko oztopatzen du integrazio prozesua; izan ere, bertako pertsonekin harremanak abiarazteak akulturazio-estresa arinduko luke eta kulturaz haraindiko egokitzapena hobetuko luke, doikuntza psikologikoarekin lotutako faktore garrantzitsuenetako bat izanik (Pinto de Almeida, 2015).

Kulturartekotasuna eta kulturarteko gaitasunen prestakuntzaren onurak:

Arestian esan dugunez, kulturartekotasuna funtsezko puntu bat da atzerritar baten integrazio-prozesuan, eta, beraz, oso garrantzitsua. Hortaz, pertsona horien integrazioa errazterako orduan, aisialdiko eta denbora libreko taldeek bete beharko luketen beste ezaugarri bat izango zen. UNESCO-ren arabera (2015), kulturartekotasuna hainbat kulturen presentziari eta elkarrekintza ekitatiboari dagokio, bai eta elkarrizketaren eta elkarrekiko errespetuaren bidez kultura-adierazpen partekatuak sortzeko aukerari ere. Beraz, kulturen arteko elkarbizitzatik eta bizikidetzatik haratago doala uste dut, eta elkar trukatzuz eta aberastuz mantentzen den harremana dela.

Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi-ren arabera (d.g.), kulturartekotasuna duintasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetan oinarritzen da. Bi kultura edo gehiagoren arteko harremanak horizontalki eta ekitatiboki eratzea dakarrena. Gainera, aipatutakoa, ikaskuntza-prozesu dinamiko batetik abiatuta lortzen da. Kultura-desberdintasunak dituzten pertsonen eta taldeen ahalmenak garatzeko ahalegin kolektiboa eta kontzientea eginez. Harremanak gizarte-multzo osoa aberasten duela ulertzea da garrantzitsua, harremanetarako ez ezik, errealitate komun berri bat eratzeke espazio bat ere sortuz (Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi, d. g.).

Horretaz gain, kulturartekotasuneko gaitasunen araberrako prestakuntzak aukera oso desberdinak eskaintzen dizkigu, Iglesias Vidalen esanetan (2014). Lehenik eta behin, aurretik dakiguna, zalantzan jartzeko aukera ematen digu. Hau da, dagoeneko bereganatuta ditugun ikusmolde horietako batzuk kendu eta hustutzea, beste herri batzuei lekua eta sarrera emateko. Horretaz gain, hezkuntza-prozesuetan erraztasun handiagoa izateko ere baliagarria izan daiteke. Termino horietan, kulturartekotasunari buruzko gaitasunen araberrako prestakuntzak, malgutasuna eta irekitasuna eskatzen ditu, parte-hartzaileak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei interes komunetarako eskaintzera bideratzeko (Iglesias Vidal, 2014).

Gainera, prozesuak emaitzen aurretik lehenesteko aukera ematen digu. Izan ere, prozesua delako interesatzen zaiguna, ez dagoelako hezkuntza-emaitzarik prozesurik gabe. Horren harira ere, hezkuntza-komunitatea indartuz eta gizartean eraldatzen jarraituz; testuinguru horretan, kulturartekotasuneko prestakuntza-prozesuak aukera bat direlako gizartea eta kultura eraldatzeko (Iglesias Vidal, 2014).

1.6. Aisialdiaren eta integrazioaren arteko harremana

Puntu honetan, aisiak eta denbora libreak integrazioarekin duen harremana aztertuko dut, nire ustez, oso hurbilekoak direnak. Lehenik eta behin, pertsona etorkina prest egon behar da rol edo paper soziokulturalak ikasi eta beretzeko. Rolak ikaskuntza eta jarduna progresiboa dela esan dezakegu, besteekiko interakzioaren bidez egiten baita eta, ongizate-sentimendu atseginak sortzen dituzten esperientziak bizi ahala gertatzen delako. Prozesu horren ezaugarri nagusia da izandako bizipena gogora ekartzean, etorkinak berriro egin nahiko lukeen zerbait bezala gogoratzen duela; modu horretan, lotura estua geratzen da asebetetze- edo ongizate-sentsazio atsegingarriaren eta aisialdiko bizipenaren artean (Pinto de Almeida, 2015). Bard eta Raghebek (1980, orr. 140) Aisialdiaren Asebetetze-Eskala bat sortu zuten, eta bertan sei propietate ezarri ziren:

Psicológica, conllevando la sensación de libertad, diversión y cambio; **educativa**, produciendo un progreso intelectual y adquisición de conocimientos; **social**, ampliando las relaciones gratificantes con otras personas; **relajantes**, conduciendo a la reducción del estrés y al descanso del cansancio; **fisiológica**, ampliando la sensación de bienestar, salud, control del peso y forma física; **estética**, impulsando la dimensión sensible en la forma como cada persona se mira (Bard eta Ragheb, 1980, orr. 140; in Pinto de Almeida, 2015).

Pinto de Almeidaren aburuz (2015), aisiak etorkina izatea barne hartzen du, helmugan helburuak eta xedeak lortzen laguntzen baitu; horrela, pertsonaren izateko moduak hainbat modutan eta testuinguru desberdinetan konbinatzen ikasten da, gainera jarduteko modu bat erakusteko gai da, non argi uzten duen modu iraunkorrean txertatu eta lotu direla. Horrekin batera, argi izan behar da helburua ez dela erabat sartzea edo integratzea, baizik eta etorkinaren izaeraren eta testuinguru soziokulturalaren arteko lotura lortzea, aisialdiko bizipenak sortuz. Pinto de Almeidaren perspektiba honetatik ikusita (2015), oso ohikoa da etorkin horiek jatorrian zituzten identitate-erakundeak bilatzea, helmugan sozializazioak sortzeko eta, ondorioz, migrazio-integrazioan zuzenean eragiteko. Horrela, etorkinek beren trebetasunak, gaitasunak, ezagutzak eta trebetasunak adierazten laguntzen diote, elkarren arteko harremanak, elkartrukeak eta komunikazioak eraikitzeko.

2. Metodologia

2.1. Ikerketaren helburuak

1. Deustualdeko aisialdi taldeek izan duten garapena aztertzea, etorkinen inklusioari dagokionez.

2. Begiraleen ezagutzak, interesak eta esperientziak ezagutzea etorkinen inklusioaren lanketari dagokionez.
3. Gazteak auzoko proiektuetan murgiltzeak, gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duen jakitea.

2.2. Berrikusketa Bibliografikoa

Jarraian ikusiko dugun taulan, ikerketaren azterketa egiteko egin dudana berrikusketa bibliografikoa aurkituko dugu. Aipatutako berrikusketa hau, aurrera eramateko erabili dudana prozedura, bi datu baseetan oinarritua egon da batik bat. Alde batetik, gehienetan erabili izan dudana **Dialnet** datu-basea izan da. Bertan, nire ustez bilaketarako proposena den hitz gakoa sartu dut, eta ondoren, emaitzen kopurua murriztu ahal izateko, gehienetan iragazki bat gehitu behar izan diot. Dialnet datu basean aurkitu ditudan dokumentuen artean, interesgarriena eta baita baliagarriena ere, Montejo Coboren “Jóvenes inmigrantes y educación en el tiempo libre” izan da (2003). Izan ere, dokumentu horretatik atera izan ditut aisialdiaren eta denbora librearen garrantzia azpimarratzeko hainbat argudio. Era berean, Dialnet datu baseatik ateratako dokumentuen artean, oso lagungarria izan da niretzat ere Escartín Caparrósen (2015) Tesia: “*Las migraciones en femenino: cambios familiares y redes sociales de las mujeres migrantes*”. Migrazioaren gaiari beste ikuspuntu batetik aurre egiten lagundu dit, kasu honetan emakumeen ikuspegitik.

Bestalde, erabili dudana beste datu basea, **Google Scholar** izan da. Datu base honekin, prozedura berbera erabili izan dut. Hitz gako egokia sartu eta emaitza kopurua murriztu ahal izateko, iragazki bat gehitu diot bilaketari. Hauen artean erabilienak: Tesiak, Liburuak edota hitz gakoaren zehaztapenak izan dira. Modu honetan, Comas d’Argemir eta Pujadas Muñoz-en “*Familias migrantes: reproducción de la identidad y del sentimiento de pertenencia*” (1991) bezalako testu interesgarriak topatzeko gai izan naiz; identitatearen bilaketaren puntu garrantzitsu batzuk ikusarazteko erabili dudana. Halaber, Berrio-Otxoa et al. aurrera eramandako lanari esker (2003), aisialdiko taldeei eta haien funtzionamenduari buruzko aurretiko ezagutza handitu izan dut. Horretarako, hurrengo dokumentua erabili izan dut: “*Gaztetxoak eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten*”. Honako hauei buruzko informazioa lortzeko: aisialdi talde bateko lan-ildoen informazioa jasotzeko, gune monitorizatuen informazioa, begirale edota hezitzaileen inguruan gehiago jakiteko, e.a.

Datu Basea	Hitz Gakoa	Emaiza Kopurua	Iragazkia	Emaiza Kopurua	Aukeratutako Dokumentua
Dialnet	Interculturalidad	17.493	Interculturalidad en el tiempo libre	123	La formación en interculturalidad en la educación en el tiempo libre (Iglesias Vidal, E., 2014)
Dialnet	El ocio y la integración	292	TESIA	101	El ocio como ámbito de integración de los inmigrantes. (Pinto de Almeida, R., 2015) La integración de los hijos e hijas de inmigrantes en Bilbao. Escuela e identidad (Muniategi Azkona E., 2012)
Dialnet	La diferencia de género en las migraciones	798	TESIA	424	Las migraciones en femenino: Cambios familiares y redes sociales de las mujeres migrantes (Escartín Caparrós, M.J., 2015)
Dialnet	Educación en el tiempo libre	2.331	Educación en el tiempo libre e inmigrantes	38	Jóvenes inmigrantes y educación en el tiempo libre (Montejo Cobo, D., 2003)
Dialnet	Educación y jóvenes	9.035	LIBURUA	336	Educación y jóvenes en tiempos de cambio (Pérez Serrano, G., eta De-Juanas Oliva, A., 2014)
Dialnet	Metodología Cualitativa	15.095	Liburuaren artikulua	788	Metodología cuantitativa Vs. Cualitativa (Abalde, E., eta Muñoz Cantero, J. M., 1992)
Dialnet	Técnicas de la metodología cualitativa	4.040	Liburuaren artikulua	173	Técnicas y métodos en la investigación cualitativa (Munarriz Irañeta, B., 1992)

					La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. (Eduardo López Estrada, R., eta Deslauriers, J.-P., 2011)
Google Scholar	Sentido de pertenencia	418.000	Sentido de pertenencia en familias migrantes	56.000	Familias migrantes: reproducción de la identidad y del sentimiento de pertenencia (Comas d'Argemir, D., eta Pujadas Muñoz, J. J., 1991) Identidades desterritorializadas. El sentimiento de pertenencia nacional entre los adolescentes de familias inmigradas (Terrén E., 2008)
Google Scholar	Educadores en el tiempo libre	166.000	Formación y cualificación de educadores en el tiempo libre	28.800	Los educadores en el tiempo libre. Formación y cualificación (De Castro Cardoso et al., 2008) Ocio y participación social en entornos comunitarios (Madariaga Ortuzar A. eta Ponce de León Elizondo A., 2018)
Google Scholar	Gazteak eta aisialdia	896			Gaztetxoak eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten (Berrio-Otxoa et al., 2003)
Google Scholar	Inclusión en el tiempo libre	226.000	2018-2021 urteen artekoak	23.400	El tiempo libre educativo como recurso para la inclusión de las personas migrantes y refugiadas (Roman Etxebarrieta et al., 2018)

2.3. Metodologia kualitatiboa: Galdetegiak eta Elkarrizketak

Metodologiari dagokionez, metodologia kualitatiboa erabili izan dut. Izan ere, aurrerago azalduko dudan moduan, aukeratutako azterlanerako metodologia proposena dela uste dudalako, teknika desberdinen bitartez behar dudan informazioa bildu ahal izateko; modu horretan, nire helburuak lortzen eta Deustualdeko aisialdi taldeen egoera aztertzen saiatu naiz.

Lehenik eta behin, ikerketa kualitatiboa zer den azaltzen hasi aurretik, ikerketa bat zer den argitzen hasiko naiz. Moulyn-en oinarrituta (1978), ikerketa bat, planteatutako arazoei konponbide fidagarriak emateko prozesua da, datuak lortuz, aztertuz eta interpretatuz (Mouly, 1978; in Munarriz Irañeta, 1992). Horrek guztiak ikerketari aurre egiteko moduak biltzen ditu, metodologia kualitatiboan eta kuantitatiboan laburbilduta.

Metodologia kualitatiboak, barrutik egindako ikerketa bateri egiten dio erreferentzia, indibidualaren eta subjektiboaren nagusitasuna dakarrena. “*Su concepción de la realidad social entra dentro de la perspectiva humanística*” (Abalde eta Muñoz Cantero, 1992). Gainera, metodologia kualitatiboaren ezaugarrien artean, besteak beste hauek egongo lirateke: metodologia kualitatiboa, azterlanaren garrantzian zentratzen da, zorrotasun metodologikoan baino gehiago; teoria desberdinak datuetatik sortzen dira, ez dira aurretik planteatzen; sentimenduetan oinarritutako ezagutza erabiltzen da; ikertzailea bera izaten da tresna, izan ere, nahiz eta modu horretan objektibotasuna galtzen den, malgutasunean irabazten da, e.a. (Munarriz Irañeta, 1992)

Beraz, behin aurrekoa argi utzita, metodologia kualitatiboa erabili dudala esan behar dut nire ikerketan zehar lan egiteko. Izan ere Deustualdeko aisialdi taldeen egoera aztertu ahal izateko eta nire helburuak lortzen saiatzeko, ezinbestekoa iruditzen zait aipatutako taldeak bideratzen dituzten hezitzaileen zein begiraleen iritziak eta esperientziak kontuan izatea. Betiere, prozesuari merezi duen garrantzia eskainiz eta modu subjektibo batean aurrera eramaten, emaitzetan bakarrik zentratu gabe.

Aurretik aipatutako metodologia kualitatiboaren tekniken artean, nire ikerketarako datuak lortzeko, **galdetegiak eta elkarrizketa** erabiltzea erabaki dut¹. Modu horretan,

¹ Egin ditudan galdetegi eta elkarrizketen ereduak eranskinetan ikus daitezke

Deustualdean dauden aisialdi taldeen errealitate hurbilena ezagutzen saiatzeko, begirale eta hezitzaileen jarrerak, sinesmenak eta iritzi desberdinak ezagutzeko, e.a.

Galdetegitik hasita, argi utzi behar dut ez dela berez ikerketa bat, baizik eta beharrezko datuak biltzeko erabiltzen den tresna. Egin nahi dugun ikerketa mota argi dudanean (kualitatiboa), galdetegia erabiliko dut beharrezko informazioa lortzeko, baldin eta gure ikerketaren helburua bada fenomeno sozial baten tamaina, beste fenomeno batekin duen harremana edo nola edo zergatik gertatzen den jakitea, bereziki pertsona askoren iritzia jakin behar bada (Fernández Núñez, 2007).

Nire kasuan, Deustualdeko 6 aisialdi talde desberdinen hezitzaileen iritzia eta esperientziak ezagutu nahi ditudanez, eta horrek pertsona askoren iritzia biltzen duenez, galdetegia egitea erabaki dut. Galdetegia egiteko, Fernández Núñez-en oinarritutako hainbat fase jarraituko ditut (2007).

Lehenengo urratsa, behar dugun informazio mota zehaztea izan da eta zer pertsonengandik nahi dugun haien iritzia. Nire kasuan, begirale-taldera mugatzea erabaki dut, eta ez talde osora (gazteak barne), behar nuen informazio hori haien ikuspegitik aztertu nahi nuelako. Horrela, zer galdera behar diren eta zein ez erabakitzen jakin dut, idazteko estiloaz gain; izan ere, ez da gauza bera galderak egitea 18 urtetik beherako gazteentzat edo helduentzat egitea, kasu honetan bezala.

Bigarren urratsa, galderak idaztea izan da, eta nire ikerketan zein galdera mota diren egokienak aukeratzea. Fernández Núñez-en oinarrituta, urrats hauek jarraitzea erabaki dut (2007):

- **Galdera sozio-ekonomikoak barne hartzea:** galdera hauek aukera ematen dute galdetegiari erantzun dioten pertsonen taldea orokorrean deskribatzeko eta, ondoren, erantzunen analisi bereziak egiteko. Adibidez, honako datu hauek sartzen dira: adina, sexua, jatorria, e.a.
- **Galdera motak zehaztea:**
 - Galdera itxiak: Galdera itxiek alde aurretik mugatutako kategoriak edo erantzun-aukerak dituzte, hau da, parte-hartzaileei erantzuteko aukerak aurkezten zaizkie eta haiek horietara mugatu behar dira. Dikotomikoak izan daitezke (erantzuteko bi aukera) edo erantzuteko hainbat aukera izan ditzakete. Nire kasuan, aukera anitzetako galderak

gehiago erabiltzea erabaki dut. Izan ere, galdera itxien desabantaila inkestatuen erantzunak mugatzen dituztela da, batzuetan, planteatutako kategoriek ez dutelako deskribatzen pertsonak buruan dutena.

- Galdera irekiak: Hauek aldiz, ez dituzte erantzuteko aukerak mugatzen; aitzitik, tarte bat uzten dute inkestatuak bere erantzuna idatz dezan. Galdera mota honek ikertzaileak azterketa konplexuagoa egitea eta inkestatuak ahalegin handiagoa egitea eskatzen du. Hala ere, galdera irekien erabilera handiagoa egitea ikusi dut aproposena nire lanean.

- **Galderak idaztea**: Fernández Núñez-en (2017) hitzetan, galdera argiak izan behar dira, errazak, ulergarriak eta zehatzak. Gainera, ez dira erantzun espezifikoak eskatzen duten edo parte-hartzailea modu jakin batean erantzutera bultzatzen duten galderak egin behar, baizik eta era guztietako erantzunak ahalbidetzen dituztenak. Bukatzeko, egokiena galdetegiaren hasieran galdera neutralak edo erantzuteko errazak jartzea da, inkestatuari egoeraren berri emateko, eta zailenak eta luzeenak amaierarako uztea.

Bukatzeko, hirugarren eta azken urratsa daukagu, zeina sarrerako testu bat idaztean eta galdetegiaren alderdi formala diseinatzean datza. Inkestatuak motibatze aldera, galde-sortak testu labur batekin hasi behar dira, azterlanaren helburua azaltzeko, haien lankidetzat aipatzeko eta galdetegiari erantzuteko denbora hartzeagatik eskerrak emateko. Gainera, sarrerako testu honetan, erantzunen anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatu behar dira. Horrek inkestatuaren konfiantza irabazten laguntzen du eta askatasun handiagoz erantzutea errazten du. Bukatzeko, diseinuari dagokionez, kontuan hartu beharreko gauzen artean daude: aurkezpena, galdetegiaren luzera, galderen ordena, galderen eta erantzunen formatua, e.a. (Fernández Núñez, 2007).

Elkarrizketari dagokionez, honela definitzen da: bi pertsona edo gehiagoren hizketaldia, leku jakin batean ematen dena, non gai bat modu intimoan eta elkarrekiko trukearen bidez tratatzen den. Elkarrizketatuek ezagutu nahi ditugun gauzak entzun, sentitu, ikusi eta bizi egiten dituzte, eta hori gogoratzea garrantzitsua da (Eduardo López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Beraz, aipatutako alderdi guzti horiek kontuan izateaz gain, beste batzuk ere kontuan izan behar dira. Hasteko, inbutuaren teknika erabiliko dudala esan behar dut, hau da, galdera orokorrak egiten hasiko naiz eta elkarrizketa aurrera joan ahala galdera zehatzetara pasatuko naiz. Horretaz gain, elkarrizketan zehar egingo ditudan galderak, betiere galdera irekiak izango dira, elkarrizketatuari ahalik eta askatasun handiena emateko erantzuterako orduan. Gainera, nire elkarrizketa, aurretik planteatutako helburuetan oinarrituta egongo da.

Honekin bukatzeko, galdetegiarekin bezala, etikari dagokionez eta Mesíaek esaten duen moduan (2017), kode jakin bat jarraitzea beharrezkoa izango litzateke.

Toda investigación influye, directa o indirectamente, sobre los derechos, el bienestar y en la vida privada de los seres humanos. Por eso mismo en estos procesos, la honestidad y la honradez son vitales para no lastimar a las personas participantes y crear momentos justos y equitativos (Mesía, 2017)

Horretarako, Loue S. eta al. (2015) aipatutako hiru printzipioak hartuko ditugu kontuan: **1.** Giza duintasunarekiko errespetua: autodeterminaziorako eta informazioa ezagutzeko eskubidea. **2.** Onura-printzipioa: elkarrizketatuek ez dute kalterik jasango, informazioa ez da erabiliko, ikerketaren ondoriozko onurak jasotzeko eta arriskuak eta onurak baloratzeko eskubidea izango dute. **3.** Justizia-printzipioa: bidezko tratuerako eta pribatutasunerako eskubidea. Laburbilduz, baimen informatuaz ari garenean, funtsezko hiru elementu hartu behar dira kontuan: ezagutza, ulermena eta gaitasuna.


Guzti hori kontuan izanda, giroari edo inguruari dagokionez, lau elkarrizketa egingo ditudanez, haien esku utziko dut presentzialtasuna; hau da, elkarrizketa egiteko bi aukerak planteatuko dizkiet (aurrez aurrekoak edo idatzizkoak izatea), eta haiek haientzat egokiena dena aukeratuko dute. Nire kasuan, azkenean, aurrez aurreko bi elkarrizketa eta idatzizko beste bi elkarrizketa egingo ditut. Aurrez aurre egindakoak, aisialdiko taldearen lokalean egingo ditut, berdintasunezkoa eta eroso den giroa sortzeko, eta, arrazoi berdinetatik, aulki batean eserita egingo ditut, bata bestearen aurrean, lasaia eta konfiantzazkoa den giroa sortzeko.

Bukatzeko, galdera ordenatuak eta argiak egingo ditudala esan behar dut. Horrekin batera eta giroa leuntzeko asmoarekin, jarrera enpatikoa izango dut eta elkarrizketatuak azaltzen duenarekiko interesa erakutsiko dut, bere erantzunak bukaerara arte entzunez eta ez moztuz. Bukatzerakoan, eskerrak emango dizkiot bere partaidetzagatik eta berriro ere

konfidentzialtasunaren gaia azpimarratuko diot (hasi aurretik baimen informatua emango diodalako).

2.4. Lagina

Aukeratutako laginari dagokionez, lehen esan bezala bi talde desberdinetan banatzea erabaki dut, alde batetik galdetegiak jaso dituztenak egongo lirateke eta bestetik elkarrizketak bete dituztenak. Galdetegiei dagokienez, Deustualdeko 6 aisialdi talde desberdinei



II. Irudia: Ekoizpen propioa

zabaltzea erabaki dut, guztira, 24 erantzun jaso dira eta grafikoan ikusi dezakegun moduan erantzun gehienak (14) Gazte Alai aisialdi taldekoak izan dira.

Bestalde, elkarrizketekin jarraituz, 4 elkarrizketa egin ditut galdetegietan aipatutako zenbait kontzeptuetan barneratzeko eta aisialdi talde desberdinen egoera hurbilagotik ezagutzeko; horretaz gain, egokia ikusi dut elkarrizketetan galdetegietan galdetu ezin izan ditudan zenbait gai aipatzea, sakonagoak edo konplexuagoak direnak baita konfiantza giro minimo bat sortzea beharrezkoa zutenak. Lehen esan bezala, haien aukeran utzi dut elkarrizketen presentzialtasuna eta beraz, bi elkarrizketa egin ditut aurrez aurre (Gazte Alaiko bi begiraleei) eta beste bi elkarrizketa online bidez (Izartxoko eta Txantxikuko begiraleei).

3. Lanaren Garapena


Ikerketa-prozesua bi zatitan banatuta egon da; batetik, egindako ikerketa galdetegiaren bidez aurrera eraman da, eta, bestetik, egindako elkarrizketa desberdinen bidez. Galdetegiei dagokienez, sei aisialdi-taldeei modu berean banatu zaizkie eta aisialdi taldeetako begiraleak arduratu izan dira galdetegia betetzeaz, ikerketa batez ere beraiei zuzenduta baitago. Guztira, 24 begiraleen iritziak eta bizipenak jaso ditudala esan dezaket: horietatik, lehen esan bezala, 14 Gazte Alai izeneko aisialdi taldekoak. Gainerako taldeei dagokienez, Txantxiku taldearenak izan dira lau erantzun, Egunsentia taldeko bi, Etorrizuna-ko beste bi, Izartxoko bakarra eta Txepetx taldeko erantzun bakarra ere.

Galdetegia talde hauei zabaltzea erabaki dut, hauek baitira Deustun gehien inplikaturak daudenak eta planteatzen diren jardueretan gehien parte hartzen dutenak. Hala ere, badira zenbait ezaugarri hauek bereizten dituztenak, horien artean, ikastetxe bateko kide izatea (hau da, aisialdi-taldea ikastetxearen parte izatea, Izartxoren kasuan bezala), edota Scout konfederazio desberdinetakoak izatea (Egungentia eta Etorkizuna, adibidez). Osteratzean, galdetegiaren bidez lortutako emaitzak ikusita, uste dut taldeak antzekoak direla jarduteko eta ekintzak planteatzerako orduan, beraz talde hauek ezin hobeto haritu daitezke elkarlanean.

Elkarrizketaren kasuan berriz, talde desberdinetako lau begiralek parte hartu dute. Jasotako datuak, galdetegiarekin batera, elkarrizketa desberdinen bidez osatzea erabaki dut. Horrela, konfiantzazko eta denbora luzeagoko giroa behar zuten gaietan sakondu ahal izan dut eta horretaz gain, taldeen egoera zehatzen inguruan galdetu ahal izan dut. Lau elkarrizketa egin ditut guztira, bi Gazte Alaiko taldeko kideei, beste bat Txantxikuko kide bateri eta azkenekoa Izartxoko begirale bati. Hauek oso lagungarriak izan dira; izan ere, parte-hartzaileen ahaleginari eta elkarrizketetan lortutako giroari esker, guztien datu oso interesgarriak atera ahal izan ditut eta beraz, nahikoak izan dira.


4. Emaitzen azterketa

Jarraian, emaitzen azterketarekin hasiko gara eta horretarako, eranskinetan ikusi dezakegun gaien banaketaz baliatuko naiz. Galdetegiari dagokionez, hauek izan dira sortu ditudan azpi-gaiak: Inklusioa, Irismena, Hezkuntza Formala eta Identitatea; Elkarrizketei dagokienez berriz: Irismena, Taldearen Funtzionamendua, Taldearen Identitatea eta Onurak. Hots, **datu demografikoen** azterketarekin hasiko gara. Bildutako 24 erantzunen artean, % 62,5 emakumeak dira eta % 37,5 gizonak. Halaber, inkestatutako pertsona guztiak, adin-tarte berekoak direla esan dezakegu, 16 eta 26 urte bitartekoak. Gauza berbera gertatzen da haien jaioterriarekin, izan ere, ehuneko ehuna da Bilbokoa, konkretuki Deustukoa.



III. Irudia: Ekoizpen propioa

Jatorriaren inguruan galdetzen dugunean berriz, erantzunak asko aldatzen direla esan dezakegu. Grafikoan ikus dezakegun moduan, gehiengoa (%75a) Euskal Herrikoa dela erantzun du: Deustukoa,



IV. Irudia: Ekoizpen propioa

Bilbokoak, Bizkaiko herri desberdinetakoak, e.a. Hala ere, Espainiako jatorria dutela ere erantzun dute, adibidez, Extremadurakoak. Bukatzeko, gutxi batzuek erantzun dute Espainiatik kanpoko senitartekoak dituztela, halaber: Italiakoak, Irlandakoak, Costa Ricakoak eta Filipinetakoak.

Inklusioa eman ahal izateko, aisialdi taldeen aldetik lanketa bat egitea ezinbestekoa dela ikusi dugu. Kasu honetan, kontuan hartu beharreko 4 zutabe desberdinetan oinarrituko naiz, Roman Etxebarrieta et al. oinarrituta (2018).

1. Inklusioa prozesu moduan. Hau da, etengabeko hobekuntza-bilaketa gisa ikusi behar da inklusioa. Helburua ezberdintasunarekin bizitzen ikastea eta horri etekina nola atera aztertzea da. Gure kasuan, hizkuntzarekin egin dezakegu lotura, izan ere, galdetegiaren emaitzen arabera, gehienek euskara erabiltzen dute komunikatzeko lehenengo hizkuntza gisa eta %91,7ak beste irtenbideren bat bilatzen du norbaitek hizkuntza hori ez ulertzekotan.

“Euskaraz hitz egiten ez duen norbait baldin badago taldean, euskaraz zein gazteleraz azaltzen ditugu ekintzak” T.1

2. Inklusioak pertsona guztien presentzia, parte-hartzea eta arrakasta bilatu behar du, haien ahotsak entzunez. Galdetegiaren arabera, partaideen %58,3ak uste du bere aisialdi taldeak ez duela etorkinengana iristeko mekanismorik erabiltzen, eta %20,8ak bakarrik uste du erabiltzen dituela (bi hizkuntzak erabiltzea, boluntariorik, matrikula guztiontzat ahalbidetzea, etab.).

“Latinoamerikan dituzten proiektuen batera bidaltzen zaituzte bertan laguntzeko. [...] Azken urteetan Bolivian dituzten proiektuetara joan izan dira bolondresak.” (P.3)

3. Inklusioak eskubideak benetan martxan jartzea eragozten duten oztopoak identifikatu eta ezabatu behar ditu.

4. Inklusioak arreta berezia jartzen du marjinalizatzeko edota baztertzeko arriskuan egon litezkeen pertsona-taldeetan. Hori dela eta, aisialdiko taldeek arreta berezia jarri beharko lukete pertsona horiek taldeetan parte har dezaten. Jarraian ikusi dezakegun moduan, inkestatutako taldeak kasu horietarako mekanismo bereziak erabiltzen dituzte.

“Atzerritarrek edo gizarte baztertzeko arriskuan dauden umeentzat, ikastetxean beste plataforma bat dugu “Empathy Site”. [...] gazteentzako gune segurua, gizarte-, hezkuntza- eta afektibitate-babesarekin lan egiten duen proiektua. [...] Askotan leku bat da non seguru sentitzen diren eta arratsalde bat pasa dezaketen bolondresekin hitz egiten edo lagunekin.” (P.3)

Arestian aipatutako puntua praktikan jartzeko, oso garrantzitsua da **irismena** kontuan izatea. Izan ere, inklusio-prozesuan, oso garrantzitsua da pertsonengana iristeko erabiltzen diren mekanismoak kontuan hartzea. Aisialdiko taldeen kasuan, etorkinen pertsona kopurua oso txikia dela ikusi dugu. “Arazo” hori, talde horiek auzoan ezagutzera emateko moduaren ondorio izan daiteke. Izan ere, gehienek ahoz-ahozkoaren bitartez edo Deustuko Ikastolarekin kontaktuan jarriz egiten dutela onartu dute, eta horrek, eragin negatiboak izan ditzake, hurrengo puntuan ikusiko dugun moduan.

“Ahoz ahozkoaren bidez, jende gutxi egon denean panfletoak banatu ditugu ikastoletan” T.2

Esan bezala, **Hezkuntza Formal** garrantzi handiko puntu bat da ikerketa honetan, eta aisialdi taldeekin harreman zuzena duela esan dezakegu. Talde gehienek zuzeneko edo zeharkako harremana dute Deustuko ikastetxe desberdinekin, galdetegien arabera: Deustuko Ikastolarekin, La Salle ikastetxearekin, Arangoitiko eskolarekin eta Intxixuko ikastolarekin batik bat, baina batez ere Deustuko Ikastolarekin. Eta, gainera, kontaktu horri eutsi behar zaiola uste dute, erlazionatzen dituzten hainbat baldintzetarako.

“Ezinbestekoa da, beraz, zentroen eta aisialdi taldeen arteko harreman estua, informazio, baliabide, espazio eta abarren trukaketarako” T.2

Puntu horretan, oso garrantzitsua da azpimarratzea talde gehienak ikastetxe jakin batera baino ez doazela, non, atzerritarren pertsona kopurua askoz baxuagoa den. Deustualdean, bi ikastetxe nagusi daude auzo bakoitzeko, gutxi gorabehera: alde batetik,

bertoko pertsona gehienak joaten direna eta bestetik, pertsona etorkin kopurua nagusitzen dena: Deustuko Ikastola eta CP Deusto LHI; Intxixu Ikastola eta CEIP San Inazio HLHI; e.a. Horren ondorioz, etorkin gehienek ez dute talde horien berri izaten, ez baitute informaziorik jasotzen, bertan ezagunen bat ez badute behintzat.

“Umeen demanda asko handitu denez, ez dugu propagandarik egin izan behar, ahoz ahoko mezuen bidez zabaldu baita” T.1

Ikastetxeen eta hezkuntza formalaren inguruan hitz egiten dugunean, **irismena** bezain garrantzitsua den puntu batean barneratu behar gara. Galdetegiaren bidez lortutako datuetan ikusi ahal izan dugunez, aisialdiko talde gehienek ikastetxeak erabiltzen dituzte beren burua ezagutarazteko, zuzenean informazio-panfletoak banatuz, edo zeharka, belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho. Askok modu horretan egiten dute, gazte komunitate guztiengana iristeko modu eraginkorra eta errazena dela uste dutelako. Parte-hartzaileen % 33,3k soilik uste dute gazte komunitate guztiengana iristea lortzen dutela erabilitako teknikekin; % 50ek, ordea, ez dutela lortzen (% 16,7k ez daki).

“Normalean Deustuko Ikastolako jendea etortzen denez, belaunaldiz belaunaldi jende berria etortzen da” T.1

Horrekin batera, ezinbestekoa den puntu bat aztertu behar dugu, **identitatea**. Izan ere, talde ezberdinetako begiraleak bat etorri dira aisialdi taldeko partaideak izatea “zubi” moduan funtzionatu duela jende ezberdina ezagutzeko, auzoko jardueretan parte hartzeko, talde desberdinak ezagutzeko, e.a. Halaber, inkestatuen %95,8k uste du talde horretako kide izateak animatu egin duela auzoko jarduera gehiagotan parte hartzera eta, beraz, integratuago sentitzera (pertsona bakar batek adierazi du ez dakiela zer erantzun). Horrekin batera, ehuneko ehunak uste du gazteak auzoko proiektuetan murgiltzea gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duela, hau, identitate propioaren garapenean oso puntu garrantzitsua izanez.

“Aisialdi talde baten parte izateak pertenezia sentimendu bat dakar de fakto. Gainera, aipatutako herriko hainbat ekimenetan parte harturik, bestelako egitasmoak eta jendea ezagutzera zaramatza.” T.2

Aipatutako azken puntu hori, talde-identitatearekin lotu genezake; izan ere, talde bakoitzaren baloreei eta lan egiteko moduei esker, gazteek identitate propioa garatu dezakete, baita talde-identitatea osatu ere. Halaber, elkarrizketatuek aitortu bezala

identitate horren garapenerako bidean, berdintasuna, erantzukizuna, bizikidetzaz, inklusioa edota errespetua bezalako funtsezko baloreak lantzen dituzte.

“Ez dut uste aldatu direnik. Garapen bat jasan dutela baietz esango nuke. [...] betidanik presente egon direla esango nuke nik. Aldatu dena pertsonak dira eta horren arabera harremanak” (P.1)


Horretaz gain, gehienek esan dute baloreak ez direla aldatzen joan denborak aurrera egin ahala, baizik eta pixkanaka garatzen eta gaurkotasunera egokitzen joan direla.

“Aldatu baino garapena jasan dutela esango nuke. Gizartearen egoera aldatuz joan da, eta horrekin batera taldea egoera berrietara ere egokitu eta moldatu behar izan da; batzuetan onerako, besteetan, berriz, atzera pauso gisa izan direnak. [...] egia da gure taldea scout talde gisa hasi zela, eta elizarekiko zuen atxikipena eta lotura oso handia zela; baina behin aldatuta, eta taldearen nortasun berria finkatuta, mantendu direla esango nuke.” (P.2)

Elkarrizketak lagungarri izan zaizkit ikerketan parte hartu duten taldeen barne-funtzionamendua hobeto ulertzeko eta haien arteko desberdintasunak ikusteko. Begi hutsez ikus daitekeen alderik handiena **talde bakoitzaren funtzionamendua** da, bakoitzak auzoan duen parte-hartze mailatik eta burutzen dituen jarduera motatik hasita. Partaidetza-mailari dagokionez, galdetutakoen %46ak uste du taldeko partaidetza-maila oso altua dela (4 puntutik 4); %46ak uste du partaidetza-maila handia dela (4 puntutik 3); galdetutakoen %4ak uste du txikia dela (4 puntutik 2); eta, azkenik, %4ak uste du partaidetza oso txikia dela (4 puntutik puntu bakarra).

“Adinaren araberrako ekintzak izango lirateke. Umeekin batez ere jolasak egiten diren bitartean, helduenekin, tailerrak hitzaldiak eta bestelakoak ere egiten dira” (P.4)

Grafikoan ikusi dezakegun moduan, hauek dira parte-hartze handiena duten jarduerak: data zehaztetako ospakizunak (Gabonak, Inauteriak, udako solstizioa...), haurrentzako tailerrak, jai batzordean parte



V. Irudia: Ekoizpen propioa

hartzea eta herri-bazkariak. Aldiz, parte-hartze baxuena dutenak jarduera politikoak eta elkartasunezko jarduerak dira (solidarioak), eta azken hori ikerketan kontuan hartu beharreko puntu oso garrantzitsua da. Izan ere, hauek dira, beste askoren artean elkarrizketatu batek aurkeztutako helburuak:

“Helburuak ondorengoak izango lirateke: Hezkuntza informala ematea [...] umeentzako aisialdi alternatibo bat izatea [...] Gazte Mugimenduaren partaide aktibo [...] euskararen bitartez egitea [...] herria sortzea [...] baloreak lantzea.” (P.1)

Bukatzeko, esan dezakegu aipatutako puntu horiek guztiek **onurak** dituztela alderdi askotan, baina, batez ere, etorkinengan. Alde batetik, onurak aurkitzen ditugu hezkuntza-mailan, aisialdiko taldeak une oro hezkuntza formala indartzeko aukera baitaude, lehen aipatu bezala.

“Urte hauetako esperientziak erakutsi izan digu askotan ume edo gazte hauek (Empathy Sitera datozenak) aisialdi taldean, ikastetxean eta beste talde batzuetan hobeto murgildu izan direla” (P.3)

Bestalde, maila pertsonalean onurak aurkitzen ditugu ere, elkarrizketatu gehienek baieztatu dutenez, nortasun propioa eta talde-identitatea sortzen laguntzen baitigu.

“Bertakoak taldean eta auzoan integratzen laguntzen bagaitu, are gehiago lagun diezaieke halako inguruetan arrotzak senti daitezkenei integratzen.” (P.4)

Eta azken horrek, onura sozializatzaileetara garamatza, pertsona desberdinak ezagutzeko aukera baitute, batzuek esaten duten bezala, beste modu batera ezagutuko ez lituzketenak. Era berean, ingurune, talde eta jarduera desberdinak ezagutzeko aukera dute ere. Horrekin guztiarekin, elkarrizketatuek etorkinengan onura anitzak nabaritu dituztela esan dezakegu.

“Auzo bateko aisialdi-talde batek sentiarazten die bizi diren inguruko kide direla. [...] Sendo eta gogotsu pentsatzen dut aisialdi taldeek egiten duten jarduera gazteen hazkunderako determinatzailea edo gako bat dela.” (P.3)

5. Ondorioak

Deustualdeko auzoetan aisialdia bideratzen dutenen lanaren eta erabiltzen dituzten errekurtsio desberdinen analisia egin ondoren, etorkinekiko inklusioari dagokionez, hainbat ondorio ateratzeko aukera izan dut. Gainera, aisialdi talde desberdinetako begiraleen ikuspuntu eta jakintza desberdinak ezagutzeko aukera izan dut, hasieran finkatutako helburuak bete ahal izateko.

Askotan, ez zaio merezi duen garrantzia ematen aisialdiari eta denbora libreari, eta, beraz, horretan aritzen diren taldeei. Horregatik, begiraleok askotan ez gara konturatzen egiten dugun lanaz eta gazteengan duen garrantziaz eta eraginaz: pertenezentzia sentimendua, gizarte-harremanen garapena, hezkuntza ez-formala konturatu gabe lantzea, jolasaren garrantzia, e.a. Azterlan honen bidez egiaztatu ahal izan dudanez, horrek are zentzu handiagoa du etorkinei buruz hitz egiten badugu; izan ere, taldeak, adibidez, bere egokitzapen-prozesuan lagun dezake.

Aisialdiko taldeak gizartean duten eraginaz jabetzen direnean, auzoko aisialdiko eskaintza edozein pertsonarentzat eskuragarri egon dadin lan egin beharko lukete, eta ez gutxi batzuen esku bakarrik (momentu honetan gertatzen den moduan); izan ere, aisialdiaz gozatzeak edozein pertsonaren eskubidea izan beharko luke.

Hori bera izan da harremanetan egon naizen talde gehienek ahulguneetako bat; izan ere, inklusio-mekanismoren bat lantzen duten galdetzen diedanean, baietz erantzuten didate, baina adibideak jartzerakoan, denek esaten dute jardueren hizkuntza aldatzen dutela (euskaratik gaztelerara), behar izanez gero. Gutxi batzuek baino ez dute azaldu inklusioa helburu duen jarduera zehatzen bat.

Gauza bera gertatzen da irismenaren gaiarekin. Izan ere, ia talde guztiek uste dute auzoan murgiltzeko erabiltzen dituzten estrategien bidez, jende guztiarengana iristen direla. Baina talde bakoitzeko pertsona etorkin kopuruari erreparatuz, eta haien aurkezpenak egiteko ze ikastetxera doazen kontuan hartuz, konturatzen gara ezetz, ez direla gazte komunitate guztiarengana heltzen. Beraz, esan genezake, aisialdi-talde bat etorkinen inklusiorako beste tresna bat izan dadin, taldeko prozesuen aurretiko plangintza eta autoebaluazioa egin beharko liritekeela. Modu berean aisialdi inklusibo baten alde egiteko eta pertsona guztiek honen eskubidea izatea bermatzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Abalde, E., eta Muñoz Cantero, J. M. (1992). Metodología cuantitativa vs. cualitativa. Berreskuratuta: <https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/8536/CC-02art7ocr.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Berrio-Otxoa, K., Hernández, J. M., eta Martínez, Z. (2003a). 1.3. Lan ildoen egituraketa: Guneen aurkezpena [Eskema]. *Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten*. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/cuaderno_sociologico_vasco_13/es_cu_soc13/adjuntos/csv13.pdf
- Berrio-Otxoa, K., Hernández, J. M., eta Martínez, Z. (2003b). *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten*. (1.a ed.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/cuaderno_sociologico_vasco_13/es_cu_soc13/adjuntos/csv13.pdf
- Comas d'Argemir, D., eta Pujadas Muñoz, J. J. (1991). Familias migrantes: reproducción de la identidad y del sentimiento de pertenencia. *Papers. Revista de Sociologia*, 36, 35. <https://doi.org/10.5565/rev/papers/v36n0.1586>
- Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi. (d. g.). *Interculturalidad / Diccionario Cear*. Berreskuratuta [2021/02/07]: <https://diccionario.cear-euskadi.org/interculturalidad/>
- De Castro Cardoso, D., eta Cabezas González, M. (2008). Los Educadores en el Tiempo Libre. Formación y Cualificación. *Papeles Salmantinos de Educación*, 11, 307-330. https://www.researchgate.net/publication/312976352_Los_educadores_en_el_tiempo_libre_Formacion_y_cualificacion_Educators_in_the_leisure_Training_and_qualification
- Eduardo López Estrada, R., eta Deslauriers, J.-P. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen: revista de trabajo social y ciencias sociales*, 61, 1–19. <http://www.margen.org/suscri/margen61/lopez.pdf>

- Elizondo Carmona, C. (2017). Educación inclusiva. Un paradigma Transformador. *Pedagogías de la inclusión. Fórum Aragón*, 22, 28–31. <http://feae.eu/revista-forum-de-aragon/>
- Escartín Caparrós, M.J. (2015). *Las Migraciones en Femenino. Cambios Familiares y Redes Sociales de las Mujeres Migrantes*. (Doktoretza Tesia). Universidad de Alicante, Alicante.
- Fernández Núñez, L. (2007ko martxoaren 8a). ¿Cómo se elabora un cuestionario?. Butlletí LaRecerca. Berreskuratuta: <http://www.ub.edu/ice/recerca/pdf/ficha8-cast.pdf>
- Iglesias Vidal, E. (2014). La formación en interculturalidad en la educación en el tiempo libre: necesidades y estrategias desde una perspectiva de competencias interculturales. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 17(2), 171. <https://doi.org/10.6018/reifop.17.2.197511>
- Immigrazioaren Bilboko Behatokia. (2019). *Atzerriko Immigrazioa Bilbon 2019. urtean*. https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=Content-disposition&blobheadername2=pragma&blobheadervalue1=attachment%3B+filename%3Dinmigracion_extranjera_2019.pdf&blobheadervalue2=public&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1274272341885&ssbinary=true
- Leiva Olivencia, J. J. (2013). De la integración a la inclusión: evolución y cambio en la mentalidad del alumnado universitario de educación especial en un contexto universitario español. *Actualidades Investigativas en Educación*, 13(3), 1–27. <https://doi.org/10.15517/aie.v13i3.12027>
- Loue S., Comité Central de Bioética, Molina DP. (2015). Las consideraciones éticas sobre la vulnerabilidad en la investigación cualitativa. *Rev. Fac. Nac. Salud Pública*; 33(supl 1), 128-130. <https://doi.org/10.17533/udea.rfnsp.v33s1a22>
- Mesía Maraví, R. (2007). Contexto Ético de la Investigación Social. *Investigación Educativa*, 11(19), 137–151. <https://revistasinvestigacion.unmsm.edu.pe/index.php/educa/article/download/3624/2933>

- Montejo Cobo, D. (2003). "Jóvenes Inmigrantes y Educación en el Tiempo Libre" (La experiencia desde una entidad: Casal dels Infants del Raval). *Revista de Estudios de Juventud*, 60, 127-133.
http://www.injuve.es/sites/default/files/art10_DMontejo.pdf
- Munarriz Irañeta, B. (1992). Técnicas y métodos en investigación cualitativa. En: Muñoz Cantero, J.M y Abalde Paz, E. (Coords.). *Metodología educativa I: Xornadas de Metodoloxía de Investigación Educativa*. Servizo de Publicacións de la Universidade da Coruña. España. 101-116. ISBN: 84-600-8006-4
- Muniategi Azkona, E. (2012). *La integración de los hijos e hijas de inmigrantes en Bilbao. Escuela e identidad* [Doktoretza Tesia, Deustuko Unibertsitatea].
<https://www.educacion.gob.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?idFichero=PfrEe49wRDs%3D>
- Orden de 18 de noviembre de 1970, por la que se aprueba la Norma Orgánica de la Delegación Nacional de la Juventud. *Boletín Oficial del Estado*. Madrid, 2 de diciembre de 1970, núm. 288, orr. 19579-19584.
- Pérez Serrano, G., eta De-Juanas Oliva, A. (2014). *Educación y jóvenes en tiempos de cambio* (1.a ed., Vol. 1). UNED.
https://www.researchgate.net/publication/323856100_Caminando_hacia_la_educacion_del_ocio_en_la_naturaleza_la_juventud_en_situacion_de_dificultad_social_como_protagonista
- Pinto de Almeida, R. (2015). *El Ocio Como Ámbito de Integración de los Inmigrantes. Representaciones y vivencias de mujeres brasileñas en el País Vasco*. (Doktoretza Tesia). Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Pradillos, J. (2020ko abenduaren 19a). Ocio - Integración: ¿Qué relación tienen? *RES. Revista de Educación Social*, 3. <https://eduso.net/res/revista/3/experiencias/ocio-integracion-que-relacion-tienen>
- Real Decreto 2485/1970, de 21 de agosto, de promulgación de las normas de organización y desarrollo de los Organos de la Secretaría General del Movimiento. *Boletín Oficial del Estado*. Madrid, 10 de septiembre de 1970, núm. 217, orr. 14902-14907.

- Roman Etxebarrieta, G., Alonso Sáez, I., eta Berasategi Sancho, N. (2018). El tiempo libre educativo como recurso para la inclusión de las personas migrantes y refugiadas: diagnóstico y aproximación a las buenas prácticas en la Comunidad Autónoma Vasca. *ZERBITZUAN*, 66, 49–60. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.66.04>
- UNESCO. (2015ko abenduaren 25a). *Interculturalidad*. Diversidad de las expresiones culturales. <https://es.unesco.org/creativity/interculturalidad>

I. Erabilitako galdetegia

3/5/2021

DEUSTUALDEKO AUZOETAN AISIALDIA BIDERATZEN DUTENEN ANALISIA ETORKINEKIKO INTEGRAZIOAN

DEUSTUALDEKO AUZOETAN AISIALDIA BIDERATZEN DUTENEN ANALISIA ETORKINEKIKO INTEGRAZIOAN

Izaskun Malabe naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako laugarren mailako ikaslea. Jarraian aurkituko duzuen galdetegia, Gradu Amaierako Lanean aurrera jarraitzeko erabiliko dut, beraz zintzasunez erantzutea eskertuko nizueke.

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia, Deustualdeko auzoetan aisialdia bideratzen dutenen analisia egitea da, zehazki etorkinekiko integrazioari dagokionez. Horretarako, Deustualdeko testuingurua ezagutu eta aztertu ondoren, aisialdi talde desberdinekin harremanetan jarri da eta galdetegi bat diseinatu da, zeina Deustuko aisialdi taldeetako begirale desberdinei bidalita izan den. Lortutako emaitzekin hipotesiak argitzen saiatu da, talde hauen garapenean laguntzeko asmoz, etorkinen integrazioari dagokionez.

Eskerrik asko zuen partaidetzagatik!

Me llamo Izaskun Malabe y soy estudiante de cuarto de Educación Social en la UPV. A continuación, encontraréis un cuestionario que utilizaré para continuar el Trabajo de Fin de Grado, por lo que agradecería que respondieseis con sinceridad.

El objetivo principal de éste Trabajo de Fin de Grado, es realizar un análisis de las personas que orientan el tiempo libre, en concreto en la integración con los inmigrantes, en los diferentes barrios de Deusto. Para ello, tras conocer y analizar el contexto de Deusto, se ha puesto en contacto con diferentes grupos de tiempo libre y se ha diseñado un cuestionario, el cual ha sido enviado a monitores de diferentes grupos de tiempo libre. Con los resultados obtenidos, se tratará de clarificar las distintas hipótesis, con el fin de contribuir al desarrollo de estos grupos en lo que se refiere a la integración de las personas inmigrantes.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, formulario honen bidez lortutako datu pertsonalak zure baimenarekin tratatuko dira, eta sustapen- eta hedapen-helburu eskusiborako. Gainera, gogoratu 16 urtetik beherakoa bazara, baimena eskatu beharko diezula zure aitari, amari edo legezko tutoreari.

En cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679, General de Protección de Datos de Carácter Personal, los datos de carácter personal obtenidos mediante la cumplimentación del presente formulario van a ser tratados con su consentimiento y para la exclusiva finalidad de promoción y divulgación. Además, recuerda que, si eres menor de 16 años deberás de pedir autorización a tu padre, madre o tutor/a legal.

*Obligatorio

1. Sexua / Sexo: *

Marca solo un óvalo.

- Emakumea / Mujer
 Gizona / Hombre
 Beste bat / Otro

2. Adina / Edad: *

Marca solo un óvalo.

- 16-26
 27-59
 60 edo gehiago / 60 o más

3. Jaioterria / Ciudad natal: *

4. Zein da zure jatorria? (Familiarena) / ¿Cuáles son tus orígenes? (De tu familia): *

5. Zein da zure aisialdi taldearen izena? / ¿Cuál es el nombre de tu grupo de tiempo libre? *

6. Duela zenbat urte sortu zen zure aisialdi taldea? / ¿Hace cuántos años se creó tu grupo de tiempo libre? *

Marca solo un óvalo.

- 1-20 urte / 1-20 años
 21-40 urte / 21-40 años
 41- 60 urte/ 41-60 años
 60 urte baino gehiago / Más de 60 años

7. Zein da zure aisialdiko taldean dauden pertsona atzerritarren edo jatorri atzerritarra duten pertsonen ehunekoa? / ¿Cuál es el porcentaje de personas extranjeras o de origen extranjero que se encuentran en el grupo de tiempo libre? *

Marca solo un óvalo.

- %100 bertakoak dira / El 100% son autóctonos
 %100 pertsona atzerritarrak dira / El 100% de ellos son personas extranjeras
 Gehienak bertakoak dira / La mayoría son autóctonos
 Gehienak atzerritarrak dira / La mayoría son extranjeros
 Bertakoak eta atzerritarrak dira, neurri berean / Son tanto autóctonos como extranjeros en la misma medida

8. Aurreko galderari emandako erantzuna kontuan hartuta, uste duzu datu horrek eragina duela zure auzoko jarduerak prestatzeko edota horietan parte hartzerako orduan? Zergatik? / Teniendo en cuenta tu respuesta a la pregunta anterior, ¿Crees que ese dato repercute a la hora de preparar y/o participar en las diferentes actividades de tu barrio? ¿Por qué? *

9. Zein da normalean zuen jardueretan erabiltzen den hizkuntza? / ¿Cuál es el idioma que habitualmente se utiliza en vuestras actividades? *

10. Norbaitek hizkuntza hori ulertzen ez badu, beste irtenbideren bat bilatzen duzue? / En caso de que alguien no entienda ese idioma, ¿Se busca alguna otra solución? *

Marca solo un óvalo.

- Bai / Si
 Ez / No
 Ez dakit / No lo sé

11. Zein? ¿Cuál? *

12. Zure ustez, zein da zure taldeak auzoan duen parte-hartze maila? / En tu opinión, ¿Cuál es el nivel de participación de tu grupo en el barrio? *

Erantzun hurrengo galderari jakinda 1 OSO TXIKIA dela eta 4 HANDIA/ Responde a la siguiente pregunta sabiendo que 1 es MUY BAJO y 4 es ALTO

Marca solo un óvalo.

1	2	3	4
<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

13. Markatu jarduera hauetatik zeinetan parte hartzen duen zure aisialdi taldeak: / Señala en cuál de las siguientes actividades participa tu grupo de tiempo libre: *

Selecciona todos los que correspondan.

- Herri-bazkariak / Comidas populares
- Umeentzako tailerrak / Talleres dirigidos a niños
- Jai batzordea / Comisión de fiestas
- Jarduera soziokulturalak/ Actividades socioculturales
- Data zehatzetako ospakizunak (gabonak, inauteriak, udako solstizioa...) / Celebraciones en fechas señaladas (navidades, carnavales, solsticio de verano...)
- Elkartasunezko jarduerak (janari bilketa, azoka solidarioa, arrazoi desberdinetara bideratutako diru-bilketa...)/ Actividades solidarias (recogida de alimentos, mercadillo solidario, recaudar dinero para diferentes causas...)
- Jarduera politikoak / Actividades políticas

14. Ba al du zure aisialdi-taldeak harreman zuzenik hurbilen duzun ikastetxearekin? / ¿Tiene tu grupo de tiempo libre contacto directo con el centro educativo más cercano? *

Marca solo un óvalo.

- Bai / Si
- Ez/ No
- Ez dakit / No lo sé

15. Erantzuna baiezkoa bada, ze ikastetxerekin? / En caso afirmativo, ¿Con qué centro educativo?

16. Erantzuna baiezkoa bada, zertarako? Uste duzu kontaktu hori izatea garrantzitsua dela? / En caso afirmativo, ¿Para qué? ¿Crees que tener ese contacto es importante?

17. Erantzuna ezezkoa bada, kontaktu hori hobetzeko lan egitea garrantzitsua izango litzatekeela uste duzu? Zergatik? / En caso negativo, ¿Crees que sería importante trabajar para mejorar ese contacto? ¿Por qué?

18. Uste duzu zure aisialdi taldean etorkinengana iristeko mekanismo desberdinak erabiltzen direla? / ¿Crees que en tu grupo de tiempo libre se utilizan diferentes mecanismos para llegar a las personas extranjeras? *

Marca solo un óvalo.

- Bai / Si
- Ez / No
- Ez dakit / No lo sé

19. Erantzuna baiezkoa izatekotan, jarri adibideren bat: / En caso afirmativo, pon algún ejemplo:

20. Nola ezagutarazten duzue zuen burua auzoan aisialdi talde gisa? / ¿Cómo os daís a conocer en el barrio como grupo de tiempo libre? *

Mundu guztiari irekitako jardueren bidez, ikastetxeetan informazio-panfletoak banatuz, auzoan zehar informazio-paperak itsatsiz, e.a. / Mediante actividades abiertas a todo el mundo, repartiendo panfletos informativos en centros educativos, pegando papeles informativos por el barrio, etc.)

21. Zergatik egiten duzue modu horretan? / ¿Por qué lo hacéis de esa forma? *

22. Uste duzu horrela gazte komunitate guztiengana iristen zaretela? / ¿Crees que de esa forma llegáis a todo tipo de jóvenes? *

Marca solo un óvalo.

- Bai / Si
 Ez / No
 Ez dakit / No lo sé

23. Zure ustez, talde horretako kide izateak bultzatu zaitu zure auzoko jarduera gehiagotan parte hartzera eta, beraz, integratuago sentitzera? / ¿Piensas que ser parte de ese grupo te ha animado a participar en más actividades en tu barrio y por lo tanto sentirte más integrado? *

Adibidez: Jai Batzordea, kultur jarduerak, haurrentzako tailerrak, herri bazkariak, etab. / Por ejemplo: Comisión de Fiestas, actividades culturales, talleres para niños, comidas populares, etc.

Marca solo un óvalo.

- Bai / Si
- Ez / No
- Ez dakit / No lo sé

24. Zergatik? / ¿Por qué? *

25. 16. Uste duzu gazteak auzoko proiektuetan murgiltzea gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duela? / ¿Crees que la inmersión de los jóvenes en proyectos del barrio sirve para socializar o para sentirse parte de una comunidad? *

Este contenido no ha sido creado ni aprobado por Google.

Google Formularios

Aurretik azaldu bezala, galdetegirako galderak egiteko, helburuetan oinarritu behar izan naiz:

- 1.** Deustualdeko aisialdi taldeek izan duten garapena aztertzea, etorkinen inklusioari dagokionez. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 6-7-14-15-16-17-18-20 galderak]
- 2.** Begiraleen ezagutzak, interesak eta esperientziak ezagutzea etorkinen inklusioaren lanketari dagokionez. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 4-8-9-10-11-19-21 galderak]
- 3.** Gazteak auzoko proiektuetan murgiltzeak, gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duen jakitea. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 12-13-22-23-24-25 galderak]

II. Erabilitako elkarrizketarako galderak

ELKARRIZKETARAKO GALDERAK / PREGUNTAS PARA LA ENTREVISTA

Elkarrizketatuaren izen-abizenak:

1. Zein da zure aisialdi taldearen izena? ¿Cuál es el nombre de tu grupo?
2. Zenbat urte daramatzazu taldean? ¿Cuántos años llevas en el grupo?
3. Duela zenbat urte sortu zen zure aisialdi taldea? ¿Hace cuántos años se creó tu grupo de tiempo libre?
4. Zein da zure aisialdiko taldean dauden pertsona atzerritarren edo jatorri atzerritarra duten pertsona kopurua? ¿Cuál es el número de personas extranjeras o de origen extranjero que se encuentran en tu grupo de tiempo libre?
5. Zergatik uste duzu dagoela pertsona etorkin kopuru hori? ¿Por qué crees que hay esa cantidad de personas extranjeras?
6. Zeintzuk dira zure aisialdi taldean lantzen diren esparruak? ¿Cuáles son los ámbitos en los que ese trabaja en tu grupo de tiempo libre?
7. Nola lortzen da aisialdi talde honetan parte hartzea gauzatzea eta talde moduan ezagutzera ematea? ¿Cómo se consigue la participación en este grupo de tiempo libre y darse a conocer como grupo?
8. Esparru horiek landu ahal izateko, zer motatako ekintzak eramaten dituzue aurrera? Para trabajar esos ámbitos, ¿Qué tipo de actividades lleváis acabo?
9. Zeintzuk esango zenuke direla aisialdi talde honen lanildoak? Eta helburu nagusiak? ¿Cuáles dirías que son las líneas de trabajo de este grupo de tiempo libre? ¿Y los objetivos principales?
10. Zeintzuk dira aisialdi talde honen balore nagusiak? ¿Cuáles son los valores principales de este grupo de tiempo libre?
11. Uste duzu balore nagusi horiek urteetan zehar aldatu edo garapen bat jasan dutela? ¿Crees que esos valores han cambiado o se han desarrollado durante los años?
12. Azaldu zer ulertzen duzun kontzeptu honetako bakoitzaz: / Explica qué entiendes por cada uno de los siguientes conceptos:
 - Integrazioa / Integración:
 - Inklusioa / Inclusión:
 - Bazterketa eza / La no-exclusión:

13. Lanketarik egiten da adingabe guztiak taldearen berri izateko eta parte hartu ahal izateko? ¿Se realiza algún trabajo para que todos los menores conozcan el grupo y puedan participar?
14. Azaldu dezakezu horren adibideren bat? ¿Puedes explicar algún ejemplo de ello?
15. Norbaitek normalean zuen jardueretan erabiltzen duzuen hizkuntza ulertzen ez badu, beste irtenbideren bat bilatzen duzue? Horrelako kasurik izatekotan, kontatu mesedez. En caso de que alguien no entienda el idioma que habitualmente utilizáis en vuestras actividades, ¿Buscáis alguna otra solución? En caso de haber vivido una situación similar, cuéntela por favor.
16. Uste duzu aisialdiak etorkinen integrazioan onurak sor ditzakeela? ¿Crees que los grupos de tiempo libre pueden beneficiar a las personas extranjeras?
17. Uste duzu gazteak auzoko proiektuetan murgiltzea gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duela? ¿Crees que la inmersión de los jóvenes en proyectos del barrio sirve para socializarse o para sentirse parte de una comunidad?

Aurretik azaldu bezala, elkarrizketarako galderak egiteko, helburuetan oinarritu behar izan naiz:

1. Deustualdeko aisialdi taldeek izan duten garapena aztertzea, etorkinen inklusioari dagokionez. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 3-4-6-7-8-9-10-11 galderak]
2. Begiraleen ezagutzak, interesak eta esperientziak ezagutzea etorkinen inklusioaren lanketari dagokionez. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 5-12-13-14-15 galderak]
3. Gazteak auzoko proiektuetan murgiltzeak, gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duen jakitea. [Helburu honetan oinarritu naiz, honako galdera hauek planteatzeko: 16-17 galderak]

III. Baimen informatua



BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

DOCUMENTO DE CONSENTIMIENTO INFORMADO: Recogida y tratamiento de los datos obtenidos específicamente el trabajo de fin de grado: “Deustualdeko auzoetan aisialdiko elkarrekin egiten duten lanaren analisia: etorkinen inklusiorako begirada bat”

Este proyecto, titulado “Deustualdeko auzoetan aisialdiko elkarrekin egiten duten lanaren analisia: etorkinen inklusiorako begirada bat”, se lleva a cabo con la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU).

El objetivo de este trabajo de fin de grado es realizar un análisis del trabajo de las personas que se dedican al ocio y el tiempo libre en los diferentes barrios de Deusto, además de analizar los diferentes recursos que utilizan, en concreto en lo que se refiere a la inclusión de las personas inmigrantes. La recogida de información se realizará a través de entrevistas y relatos. Algunas de éstas serán registrada en audio y transcritas para, posteriormente, proceder a su análisis.

Señala con un círculo si das tu consentimiento para esta grabación y su utilización: SÍ NO

La participación es voluntaria. No se hará ninguna utilización del material de audio. La identidad nominal de los y las informantes será confidencial y para garantizarlo se utilizará un sistema de códigos. En cualquier caso, la retirada de este consentimiento se podrá hacer efectiva poniéndose simplemente en contacto con la investigadora principal de este proyecto: Izaskun Malave Bravo (cmalabe.b@gmail.com)

Esta investigación no reportará ningún beneficio económico a su autora, ni estará sometida a ningún tipo de compraventa o contrato con ánimo de lucro.

Si estás conforme con participar en este estudio aportando tu experiencia y reflexiones, puedes firmar este consentimiento.

Muchas gracias por tu participación.

En _____ a _____ de _____ de _____

Nombre y apellidos del informante: Izaskun Malave Bravo

Firma del informante:

Nombre y apellidos de la persona informada:

Firma de la persona informada:

IV. GALDETEGIETAKO ERANTZUNEN AZTERKETA

GAIA	Elkarrizketatik ateratako informazioa	OHARRAK
Inklusioa	<p>“Euskal Herrirako harrerara bidean aurrerapausoak ematen saiatzen gara, haurra Euskal Herrian euskaraz bizitzeko gai izan dadin. [...] eroso sentitu dadin beharrezko baliabideak eskura jartzen ditugu.” T.2</p> <p>“Euskaraz hitz egiten ez duen norbait baldin badago taldean, euskaraz zein gaztelera azaltzen ditugu ekintzak” T.1</p> <p>“Repitiéndoselo individualmente, en el idioma que mejor maneja o mediante mímica o gestos para que sea capaz de realizar la actividad del mismo modo que sus iguales.” T.5</p> <p>“Normalean norbait berarekin jartzen da eta itzulpena egiten dio” T.1</p> <p>“Se intenta adaptar la actividad” T.1</p> <p>“Ingelesez hitz egitea, keinuak erabiltzea, Google translate” T.1</p> <p>“matrikula guztiontzat zabaldua da” T.2</p>	<p>Gehienek azalpenak gaztelaniara aldatzea erabakitzen dute eta batzuek euskara ulertzen ez duen pertsonaren ondoan jartzea azalpenak itzultzen joateko.</p>

	<p>“Hizkuntza biak (euskara eta gaztelera) erabili jende gehiagora heltzeko, baina esango nuke ez duela beste jarduera konkreturik egiten etorkinengana iristeko” T.1</p> <p>“Deustuko Eskola Publikoaren atzerritar kopurua %98koa dela uste dut, eta hara joaten gara aurkezpenak egitera. Bestalde, Berbaizu Euskara Elkartearen parte gara, eta Berbaizuk elkarlana sustatzen du Ecuador Etxearekin, euskara klaseak eskainiz. Bertan guraso etorkin asko ezagutzen ditugu” T.2</p>	
Irismena	<p>“Ahoz ahozkoaren bidez, jende gutxi egon denean panfletoak banatu ditugu ikastoletan” T.2</p> <p>“umeen demanda asko handitu denez, ez dugu propagandarik egin izan behar, ahoz ahoko mezuen bidez zabaldu baita” T.1</p> <p>“3 zentroetan aurkezpenak egiten ditugu eta informazioa banatzen dugu” T.2</p> <p>“Normalean Deustuko Ikastolako jendea etortzen denez, belaunaldiz belaunaldi jende berria etortzen da” T.1</p> <p>“si organizamos alguna actividad en específico sí que solemos poner carteles por el barrio” T.1</p>	<p>Errepikatu diren erantzunak: ahoz-aho, panfletoak, Belaunaldiz-belaunaldi ikastoletan, e.a.</p>

	<p>“ikastetxeetan eta auzoan zehar informazio-paperak ere itsasten ditugu” T.1</p> <p>“charlas con AMPAs y otras entidades, a través de otros grupos de tiempo libre...”</p> <p>“sare sozialen bitartez, JBren bitartez...” T.3</p> <p>“Ikastetxeko plus bat da, hau da, ikastetxearen alde bat aisialdia da non pertsonak hezten eta baloreak sustatzen diren” T.6</p> <p>“Prueba error, intentamos llegar a las familias de cualquier manera que pueda ser mínimamente efectiva” T.3</p>	
Hezkuntza formala	<p>“Ezinbestekoa da, beraz, zentroen eta aisialdi taldeen arteko harreman estua, informazio, baliabide, espazio eta abarren trukaketarako” T.2</p> <p>“Harremana aisialdia taldearen eta ikastetxearen artean estua izan beharko litzateke, jarduerak, espazioak, familiak, irakasleak...” T.6 [Antzekoak izan diren 7 erantzun gehiago]</p> <p>“Bai, guztiz garrantzitsua ikusten dut aisialdi taldeak ikastetxeekin harremanetan egotea. Ahalik eta ume gehienei heltzeko, arazoak errazago konpontzeko, etab.” T.4</p>	<p>Gehienak, hezkuntza formalaren eta informalaren arteko interakzioaren alde daude (kasu honetan ikastolen eta aisialdi taldeen arteko harremanari dagokionez).</p>

	<p>“Ez du kontaktu zuzenik baina badu erlazio estua Deustuko Ikastolarekin, eta nire ustez harreman ona izatea baina taldea ikastolako ez izatea oso positiboa da, behar denean badakigulako aukerak luzatu ahal dizkigula baina gure aldetik era autonomoan lan egiteko askatasuna daukagula” T.1</p> <p>“Bai noski. Hezkuntza esparru guztietan ematen den heinean, bai familiekin bat eskolarekin harreman askoz estuagoa izan beharko genuke” T.1</p> <p>“Ez dut uste, Gazte Alaiko partaide gehienak Deustuko Ikastolakoak dira, eta bertako zuzendaritzarekin oso kasu espezifikoetan lan behar izan dugu. Oso kasu gutxi direnez ez dut uste harremana mantentzea merezi duenik” T.1</p> <p>“Egia da hezkuntza sailen artean kontaktua izatea onurak ekar ditzakeela. Baina gure kasuan, hezkuntza formaletik kanpo lan egiten dugu eta ezberdintasunak daudela nabari da” T.1</p> <p>“ez dut ezinbestekotzat bezala ikusten, hezkuntza ez formalaz arduratzen den aisialdi talde bat garen heinean” T.1</p> <p>“Izatez ez, bi gauza desberdin direlako, gure aisialdi taldeak ez du inguruko eskolekin harremanik ezertarako” T.1</p>	<p>Beste batzuk aldiz, ez dute ikastetxeen eta aisialdien arteko interakzioaren beharra ikusten.</p>
--	---	--

<p>Identitatea</p>	<p>“Gazte Alairen parte izango ez banintz, ez nintzateke joango herri bazkarietara, jaietako hainbat ekintzetara, ez nintzateke jai batzordearen parte izango...” T.1</p> <p>“Norbanako bezala izan ahal dudan auzo eginkizunari edo, taldea beraren eginkizuna gehitzen zaidalako. [...] lekuarekin, herriarekin lotura edukitzeko joera eta izaera du taldea berak” T.3</p> <p>“Aisialdi talde baten parte izateak pertenezia sentimendu bat dakar de fakto.” T.2</p> <p>“Konpromiso maila bat eskatzen duelako auzoarekiko eta bertan lantzen diren ekintza desberdinekiko” T.1</p> <p>“si no fuera parte del grupo de tiempo libre probablemente no formaría parte de ninguna actividad de mi barrio” T.1</p> <p>“auzoko proiektuak auzo komunitatea bultzarazten dute” T.1</p> <p>“mundu justuago baten aldeko borrokan murgiltzeko grina pizten du, horrek ere pertenezia hori sustatuz” T.2</p> <p>“Modu ona da auzoko pertsonak ezagutzeko eta harremanak sendotzeko.” T.6</p>	<p>Gehienek uste dute gazteak auzoko proiektuetan murgiltzea gizarteratzeko edo komunitate baten parte direla sentitzeko balio duela.</p> <p>Askok aitortzen dute aisialdiko talde horretan parte hartu ezean, ez luketela parte hartuko beren auzoko jardueretan.</p>
---------------------------	--	--

V. ELKARRIZKETETAKO ERANTZUNEN AZTERKETA

GAIA	Elkarrizketatik ateratako informazioa	OHARRAK
Irismena	<p>“Guk dena euskaratik eta euskaraz egiten dugu. Hala ere, kasuren bat izan dugu euskaraz ez zekiena. [...] kasu horietan, erderaz egiten dugu.” (P.1)</p> <p>“Ume bat Hego Amerikatik etorri berria zen eta nahiz eta [...] ez zuen euskara menperatzen. [...] Guk euskaraz hitz egiten genion lehenengotan eta gero gaztelaniaz.” (P.1)</p> <p>“Normalean, lehenengo hizkuntza, euskara, erabiltzen saiatzen gara normalizazioa eta erabilera sustatzeko” (P.2)</p> <p>“ez daukagu arazorik hauen beharretara moldatzeko eta behar dena ahal dugun moduan azaltzeko” (P.4)</p> <p>“Noizbaiten gertatu izan zaigu, begirale edo umeren batek hau ulertu ez izatea. [...] Bi irtenbide hartzen ditugu: norbait zailtasunak dituen pertsona horren alboan jarri eta dena itzultzen joan, edo jarraian berak ulertzen duen hizkuntzan egin.” (P.2)</p>	<p>Taldeak ezagutarazteko moduari buruzko galderak oso antzekoak izan dira egindako elkarrizketa guztietan.</p>

	<p>“Normalean jarduerak euskaraz egiten saiatzen gara, eta egia da baditugula hainbat ume edo gazte bertokoak ez izateagatik edo dibertsitate-funtzionala dutelako [...] ez gaituztela ulertzen. Kasu horretan, azalpenak bi hizkuntzetan ematen dira, [...] noizbait ingelesez ere eman izan ditugu.”(P.3)</p> <p>“Parte hartzea kurtso hasieran egiten dugu. Kurtsoa hastean, kaleetatik kartelak, panfletoak banatzea [...] aurkezpen jaia [...] auzoan edonork parte hartzeko ekintza irekiak ere egin izan ditugu noizbaiten.” (P.1), (P.2), (P.3), (P.4)</p>	
<p>Taldearen funtzionamendua</p>	<p>“Euskararen erabilpena sustatzea. [...] hortaz aparte, askotan gizartean pil-pilean dauden gaiak landu izan ditugu, era ezberdinetan adinen arabera.” (P.1)</p> <p>“Formakuntzak edo jolasak egiten ditugu. [...] taldeetako jolasak azpimarratuko nituzke.” (P.1)</p> <p>“Helburuak ondorengoak izango lirateke: Hezkuntza informala ematea [...] umeentzako aisialdi alternatibo bat izatea [...] Gazte Mugimenduaren partaide aktibo [...] euskararen bitartez egitea [...] herria sortzea [...] baloreak lantzea.” (P.1)</p> <p>“Natura eta giza ingurugiroa lantzen ditugu. [...] Baita pertsona ereduari ere sakonki erreparatzen diogu. [...] Gure hezkuntza proposamenetik gizartearen aldaketa bermatu nahi dugu.” (P.2)</p> <p>“ekintza entretenigarriak, hezitzaileak, dibertigarriak, haurren adinarekin bat datozenak” (P.2)</p>	<p>Aurrera eramaten dituzten ekintzei dagokionez, antzekoak izan dira erantzunak. Baina egia da (P.3) taldeak kontaktu handiagoa duela etorkinen gaiarekin.</p>

“Jolasak [...] eztabaidak [...] bideo-foruma [...] irakurketa [...] musika eta antzerkia [...] arte plastikoak [...] aukera kultural ezberdinetan parte hartzea [...] aldizkaria [...] irteerak mendira” (P.2)

“Ekintza ildoak honakoak izango lirateke: Ikasketa metodoa; Galderan hezteia; Egin, hausnartu, egin; Baliabidearen garrantzia mezu moduan; Errefortzua eta zigorra; Familiekin, beste pertsonekin eta entitateekin egindako lana.” (P.2)

“helburu hauekin: pertsonak lagundu [...] gaitasunak garatzeko, espirtu kritikoa, pertsona bakoitzaren berezitasunak eta ezberdintasunak errespetatu. [...] Hezkuntza integralean sinisten dugu.” (P.2)

“Talde bakoitza ekintza ezberdinak eramaten ditu aurrera, adinaren arabera. [...] eskulanak [...] gynkanak [...] gai sakonagoak landu [...] proiektu garrantzitsuagoak.” (P.3)

“Latinoamerikan dituzten proiekturen batera bidaltzen zaituzte bertan laguntzeko. [...] Azken urteetan Bolibian dituzten proiektuetara joan izan dira bolondresak.” (P.3)

“Haurren eta gazteen hezkuntza eta sustapena aisialdi giroan. [...] Pertenentzia zentzua garatzea, [...] aisialdia topaketa-gune bezala ulertzea, [...] euskararekiko lotura, [...] boluntarioria sustatzea, [...] La Salle berezko balioak sustatzea, [...] jarrera zehatzak sustatzea, [...] izadiarenganako errespetua sustatzea, [...] emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.” (P.3)

	<p>“Hezkuntza ez formala eta batez ere aire zabaleko aisialdia lantzen dira” (P.4)</p> <p>“Adinaren araberrako ekintzak izango lirateke. Umeekin batez ere jolasak egiten diren bitartean, helduenekin, tailerrak hitzaldiak eta bestelakoak ere egiten dira.” (P.4)</p> <p>“Beraz, adin bakoitzak helburu konkretuagoak izango lituzke, helburu amankomun bat izanik, taldea osatzen duten artean errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzea” (P.4)</p>	
<p>Taldearen identitatea</p>	<p>“Errespetua, berdintasuna, inklusioa eta adiskidetasuna funtsezko baloreak izango lirateke. [...] Kolektibotasuna vs Indibidualismoa [...] kritikotasuna vs pasibitatea [...] feminismoa [...] autoritatea vs horizontala [...] bihurria vs obediente” (P.1)</p> <p>“Ez dut uste aldatu direnik. Garapen bat jasan dutela baietz esango nuke. [...] betidanik presente egon direla esango nuke nik. Aldatu dena pertsonak dira eta horren arabera harremanak” (P.1)</p> <p>“Errespetua, berdintasuna, ekologismoa, eskuzabaltasuna, [...] konpromisoa, kontzientzia piztu eta garatzea, elkarrizketa sustatzea, parte hartze soziala, sormena, integrazioa.” (P.2)</p> <p>“Aldatu baino garapena jasan dutela esango nuke. Gizartearen egoera aldatuz joan da, eta horrekin batera taldea egoera berrietara ere egokitu eta moldatu behar izan da; batzuetan onerako, besteetan, berriz, atzera pauso gisa izan direnak. [...] egia da gure taldea scout talde</p>	<p>Gehienek esaten dute ez dutela uste taldearen baloreak aldatu direnik, baizik eta denborarekin batera garapen bat jasan dutela.</p>

	<p>gisa hasi zela, eta elizarekiko zuen atxikipena eta lotura oso handia zela; baina behin aldatuta, eta taldearen nortasun berria finkatuta, mantendu direla esango nuke.” (P.2)</p> <p>“Erantzukizuna, sormena, bizikidetzaz, elkartasuna, justizia” (P.3)</p> <p>“Baloreak ez dira azken urteetan aldatu. Nahiko lotuta daude ikastetxearen eta La Sallek dituen balioekin [...] egia da garapen edo hobekuntza bat eman dela hauek taldeetan lan egiteko orduan” (P.3)</p> <p>“Elkarlana, errespetua, naturarekiko maitasuna (kanpamendua), pentsamendu kritikoaren garapena, egunerokotasunaren azterketa eta auzoan emandako integrazioa.” (P.4)</p> <p>“Ezinbestekoa da halako talde bateko printzipioak noizbehinka berrikustea, gizartearen morala bera moldatuz doan heinean.” (P.4)</p>	
<p>Onurak</p>	<p>“Guretzat ere taldea eta herria sortzeko aukera den bezala, haietzat lagungarria izan daiteke seguru. Inklusio hori errazagoa izateko, lagunak egiteko eta aniztasuna sustatzeko.” (P.1)</p> <p>“Auzoak proposatzen dituen ekintzetan parte hartzean herriaren parte zarelako.” (P.1)</p> <p>“Geroz eta txikiagotik integrazio hau sustatzen badugu etorkizuna oparoagoa izango da. [...] horrela hezi direlako, bereizketarik gabe, aniztasunean” (P.2)</p>	<p>Puntu honetan, denak ados daudela esan dezakegu: onurak eta alderdi positiboak asko dira, etorkinen inklusioan</p>

	<p>“Sarri bilatzen dugu komunitate baten parte izatea, eta horretan integratuak egotea, baieztapen soziala izateko, zerbaiten parte garena sentitzeko” (P.2)</p> <p>“Urte hauetako esperientziak erakutsi izan digu askotan ume edo gazte hauek (Empathy Sitea datozenak) aisialdi taldean, ikastetxean eta beste talde batzuetan hobeto murgildu izan direla” (P.3)</p> <p>“atzerritarrak edo gizarte baztertze arriskuan dauden umeentzat, ikastetxean beste plataforma bat dugu Emaphy Site. [...] gazteentzako gune segurua, gizarte-, hezkuntza- eta afektibitate-babesarekin lan egiten duen proiektua. [...] Askotan leku bat da non seguru sentitzen diren eta arratsalde bat pasa dezakteen bolondresekin hitz egiten edo lagunekin.” (P.3)</p> <p>“Auzo bateko aisialdi-talde batek sentiarazten die bizi diren inguruko kide direla. [...] Sendo eta gogotsu pentsatzen dut aisialde taldeek egiten duten jarduera gazteen hazkunderako determinatzailea edo gako bat dela.” (P.3)</p> <p>“Bertakoak taldean eta auzoan integratzen laguntzen bagaitu, are gehiago lagun diezaieke halako inguruetan arrotzak senti daitezkenei integratzen.” (P.4)</p> <p>“auzo mailan antolatzen ditugun ekintzek partaideen eta antolatzaileen errealitate desberdinak ikustaraztea errazten du, gizartean integrazioa erraztuz” (P.4)</p>	<p>funtsezko erreminta bat izanik.</p>
--	--	--

